

ARRASATE

PRESS

Arrasate 1992ko Martxoak 20, 143. zenbakia


Udalaren laguntzarekin eta AEDren ardurapean



**VIOLET
GELLENBECK**
Kanadako indiarren
harrotasuna


Basamutilak

Langile beharrean dagoen arloa



A R R A S A T E
K I R O L A K

Kontzeziño, 8 ARRASATE. Tfnoa: 79 46 12



aratuzteetako oroigarria. Dagoeneko kendu ditugu mozorroak, edo karnabale-tan jartzen diren bereziak bai, behinik behin. Geroztik kareta kendu barik bagabiltza, hori beste kontu bat da.

Monterronen ateratako argazki horretan ageri da, bai, eskaparate ederrik, hurrengo urterako non



Karmelo Uribarren

aukeratu izateko moduan.

Bakoitza alde banatara

begiratu, gainera, sokamu-

turraren orduan zezena

nondik ote datorren begiak

argi. Ordu berean zen,

baina beharbada horixe

falta da argazkian.

4.000 ARRASATEAR

Kalitatezko irakaskuntza euskaldunaren bermea 25 urteotan.

- **KALITATEZKOA**
Irakaskuntzaren erreformari aurre eginez 16 urterarteko hezkuntza.
- **AUZOAN**
12 urte arte ez duzu auzotik irten beharrik izango.
- **EUSKARAZ**
25 urte daramatzagu euskaraz irakasten.

Gazteluondo, 4 Tfnoak: 79 26 40 ARRASATE

ARRASATE PRESS

ASTEKARIA

Argitaratzailea:

Arrasate Press taldea (AED)
Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE.
Tfnoa: 77 05 65 Faxa: 77 09 40

Laguntzailea:

Arrasateko Udala

Zuzendaria:

Arrantzazu Loidi

Erredakzioa:

Beñardo Kortabarria, Rosa Mondragon.

Publizitatea eta harpidetzak:

Kepa Oliden. Amaia Sanz
Tfnoa: 77 08 15

Maketazioa:

Goio Arana

Erredakzio-kontseilua:

Jose Felix Diaz de Tuesta, Harry Zاراia,
Asier Aranguren, J. Velez de Mendizabal.

Kolaboratzaileak:

Mikel Irizar, Eukeni Olabarrieta, Arantxa Lizaso, Gerardo Markuleta, Blanka Jauregi, Joseba Vallés, Karmelo Uribarren, Hankamotz, Atalaitaikoan, ASA taldea, Xabin Arrieta, Jon Garai, Joxe Ramon Elortza, Amaia Jauregi-Arraburu, Andoni Urzelai, Koldo Rodriguez, Jon Andueza, Udalako Ingurugiroko Eskola, Juan Bautista Agorria.

Inprimategia:

Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati)

Banaketa arduraduna:

J. L. Arejolaleiba

Copyright:

ARRASATE PRESS

Tirada: 5.800 ale

Lege-Gordailua: 1124/88

ISSN: 0214-4654

Frankeo kontzertatua: 37-60

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta eritzien erantzunkizunik.

Aldizkari honek Eusko Jaurilaritzako Kultura eta Turismo Sailaren laguntza jaso du.



ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.

Ekonomiaren kinka larrian

E zezkor izateko arriskua dudan arren, bizitzen ari garen egoera ekonomikoaren gaineko zertzelada arin batzu marraztu nahi ditut. Asko idatzi eta mintzatu da gai horri buruz eta, noski, lerro labur hauetan ez doa inolako formula magikorik. Korapiloa hain nahastua dagoen, non askatzaile treberik aurkitzea Diogene-sen gizon famatuaz topo egitea bezain nekeza izango litzatekeen.

Kolore guztietako gobernuak gaixotasun berberaren sintomak ikertzen ari dira, nonbaitetik argi izpirik iristen ote zaien itzaropenean. Izan ere, makroekonomiazko azterketek ilun iragartzen bait dute etorkizuna. Edozein modutan, ene ustez, makroekonomilariak ongi egiten dute beti panorama okerra iragartzean. Asmatuz gero... "esan genuen guk!"; ordea, huts egingo balute... zeinek gogoratzen ditu ekonomilariak ugaltasuneko garaietan? Behi makaletako urteetan gizentzen dira makroekonomilariak.

Merkatuko ekonomiak hankaz gora ipini ditu herrialde sozialistetako koordenadak. Eta haize berriek jotzen dute nazioarteko ordena telezuzenduan. Ekialde-Mendebalde binomio kontrajarriri Ipar-Hego delakoak jarraitzen dio. Eta ipar hemisferioan ere inbertsioak desbideratzen ari dira, komunista birmoldatuen lurraldeetarantz. Hamar hamabi urtetan munduan egingo diren inbertsiorik garrantzitsuenak, ekonomia

planifikatuko bazkide ohiei azpiegitura prestatzeari egokituko zaizkio. Begira, bestela, norantz apuntatzen ari diren alemaniarrek.

Eta gurean, zer? Bada, ezer gutxi esan daiteke inoren esperantza pizteko. Gure industria laukia zeharo zuildua egonik, inbertsio berrietarako eragin-gairik ezak etsipenean ipntzen du enpresarien gehiengo. Eta enpresariak, bere ekimenaren ondorioz, lanpostuak sortarazi behar dituzenez gero, garbi dago euskal langilegoaren etorkizunak ilun xamar adierazten digula hodeier-tza.

Euskal enpresak, berez neurri txikikoa, elkarkundeko estrategiaren beharra du, eskalako ekonomiaren arabera. Nekeza iraungo du osasuntsu, gero eta bizitasun haundiagorik eskatzen duen merkatal egituraketan. Galdera etsigarria, ordea, gurekin zeinek elkartu nahi ote duen genuke. Nazioarteko ildo bihurrietatik osteratxo bat egitera gonbidatuko nituzke nik, hainbat eta hainbat politiko, sindikalista eta oinak lurrean ipintzen ez dituzten mesianiko horietakoak. Xamur frogatuko lukete zein den guri buruz munduan hedatuta dagoen iritzia.

Urte mordoia galdu dugu bidean. Baina, hemen bizitzen jarraitu nahi dugunez gero, oraindik bilakaera positiboari ekiteko garaiz gaudela pentsatu nahi nuke.

JOSE MARI VELEZ DE MENDIZABAL

Memesa
79 42 22

comercial
san juan

Garibai, 12
Tfnoa: 79 13 05

hikein
MARKO-JARTZEAK

Zerkaosteta, 4
Tfnoa: 79 13 84



gili gili

Iturriotz, 9 Tfnoa: 79 94 57



Liburu eta paperdenda
Bidaiarako eta larruzko artikuluak

Iturriotz, 4 Tfnoa 79 14 84



ZENBAKI

Kontabilitatea
Fiskalitatea
Lana
Zuzenbidea
Juridikoa
Finantzaketa
Aseguruak

Basabe industrialdea
ARETXABALETA

Tfnoa: 79 88 75
79 75 99

ARAMAIO
okindegia

Maisu Guridi, 3
Tfnoa: 79 36 46



Kontzezlifo, 2
ARRASATE

Tfnoa: 79 14 06

**Zergatik eta zertarako egin
genuen Garrasi Isilaren deialdia
Arrasaten**

Gure herrian egin diren pakearen aldeko lehen bilkurengatik planteiatu zaizkigun galdera desberdinen aurrean hartara bultzatu gaituzten arrazoiak adierazi nahi ditugu hemen.

Zenbait arrasatearrek osatutako taldea gara, indarkeriaz burututako heriotza gertatzen zen bakoitzean, beste askok bezala, horrek sortzen zigan izua gure artean komentatzen genuenak, helburu politikoak lortzeko indarkeriazko metodoak arbuatuz, eta Arrasaten horren kontra publikoki protestatzeko inork ezer egiten ez zuela eta, gure haserrea eta ezintasuna elkarri adierazten geniola.

Hainbeste heriotzez nazkatuta, era honetako protestaldiei ekiteko posibilitatean pentsatu genuen. Horretarako, grina bera zuten pertsonekin jarri ginen harremanetan. Orduan gertatutakoak bultzatu gintuen gauzak aurreratzera eta otsailak 6an lehen daialdia bideratzeko erabakia hartu genuen.

Garrasi Isila koordinakundearen ordezkariekin inolako kontakturik eduki ez arren, geure ustez deialdia bete-betean sar zitekeen aipatu koordinakunde horren erizpideen barruan, eta interesgarri eritzi genion Arrasateko bilkura korronte honen esparruan sartzeari.

Bilkura oso arrakastatsua gertatu zen; eta arrakasta horrek denok txunditu gintuen: argi ikusten bait zen Arrasateko herriak zuen gogoia urrats hau emateko.

Gure taldearen ustez, egiten ditugun bilkurak indarkeriarekin ados ez daudela adierazi nahi duten pertsona eta talde guztientzako bilgune dira; pertsona eta talde horiek oinarritzko ideia bat dute amankomunean: ez dago ez helburu, ez proiekturik hiltzea justifika dezakeenik.

Erizpide oinarritzko eta sinple honetatik abiatuta, gure ustez, bertaritzen diren guztiak nahi dituzten planteiamendu politiko, erlijioso, moral, etiko, sozial, ekonomikoekin osatu ditzakete motibazio eta hausnarketa partikularrak.

Orain artean egindako bilkuretan ziur gaude bertaratu direnak izan direla benetako antolatzaile eta protagonista. Guk, geure aldetik, ez dugu inolako protagonismorik eskuratzeko asmorik izan. Egin dugun bakarra, Arrasateko jendeak zuen pake-nahi ezkutuaren sua pizteko txinparta sortzea baino ez da izan.

Gure nahirik handiena herri honi pakeram aldeko mugimendu integratzailea aurkeztea da. Horregatik, orain artean arima gisa izan dugun independentzia mantenduko dugu. Ez dugu inolako dirijismo gehiegizkorik, protagonismo interesdunik onartuko, ez eta ekimen hau edozein talde politiko, sozial edo erlijiosorekin identifikatzeko saiorik ere.

Herri batek, gaurko egoeran erreakzionatu eta indarkeria, heriotza eta beldurra publikoki gaitzetsi ditueenean, lorpen horren bidean aurrera egiteko modu bakarra da.

Ondorioz, argi utzi nahi dugu:

- 1.- Herriak eta pertsonak babestearen alde gaude.
- 2.- Hori lortzeko metodo indarkeriazaleak gaitzesten ditugu.
- 3.- Giza bizitza balore oinarritzko eta alienaezintzat jotzen dugu, beste eskubide guztien oinarri eta, presionatu edo trukeak egiteko ezin erabiltzekoa.
- 3.- Horrexegatik, indarkeriak heriotza sortzen duen bakoitzean, jende arrunta zein politikoa, polizietako zein talde edo komandoetako kideena... Arrasateko herria gonbidatzen dugu bere samina eta gaitzespena adierazteragonbidatzen dugu, (Gertakizunen hurrengo egunean, arratsaldeko 8etatik 8.15etara herriko plazan).

ARRASATEARRAK PAKEAREN ALDE

MUXIBAR TABERNA

Ezin hoberik inguruan topatu!

Bizkaia Etorb. Tfnoa: 79 09 75 ARRASATE

Garizuma garai berezia da zuretzat?



Daniel Barrutiabengoa
(Jubilatua)

Garizuma, garizuma. Nik elizak agintzen duena betetzen dut, hortarako da sasoi hau eta: bigilia, barau egin eta abar.



Josefina Perez
(Etxekoandrea)

Justu Ostiral Santuan bigilia egiten dut baina beste denak aspaldi ahaztuta dauzkat.



Mertxe Sanz
(Etxekoandrea)

Zer da hori? Txikitan bai jarraitzen nituen elizako kontuak baina orain ez. Gauza hoiak galdu egin dira asko, eta hala hobe.



Pako Mondragon
(Baserritarra)

Nik beti bezala ospatzen dut. Lehen beste ohitura batzuk zeuden baina ordukoa gehiegi zen eta oraingoa bapeza. Horregatik ezinezkoa da lehen bezala ospatzea.



Iban Rincon
(Ikaslea)

Nik ez dut jarraitzen baina hortan sinisten duten pertsonak errespetatzen ditut, bakoitzak bere sinismenak ditu edo...



Maite Garcia
(Langabetua)

Lehen bai, baina orain ez. Nire amarekin bizi nintzeanean, berak esanda errespetatzen nituen gauza horiek baina orain ez.

HOSTAL LASA

Jatetxea

Ostiral eta larunbatetan gaez zabalik.
Astelehenetan: itxita

Bidekurutzeta, 36 Tfnoak: 76 10 55 / 76 20 29
BERGARA

**BEHARREZKO
TELEFONOAK**

ERITETXEAK

Arrasateko Eskualde-Ospit.	79 53 00
Igualatorria	79 05 00
Santa Agedako Ospitalea (gizonak)	79 39 00
(emakumeak)	79 44 11
Buru osasunerako zentrua	79 90 11

GURUTZE GORRIA

Bergara	76 55 76
---------------	----------

DYA

Antzuola	76 62 91
----------------	----------

ANBULATORIOAK

Arrasate (Larnaldiak)	79 13 57
(Txanda hartzeko)	77 03 46
77 07 21	
Oñati	78 08 52
Eskoriatza	79 98 58
Aretxabaleta	79 74 58
Aramaio	(945) 45 51 16

ANBULANTZIAK

Gipuzkoako ambulantiak	45 87 44
------------------------------	----------

UDALTZAINGOA

Oñati	78 04 11
Bergara	76 14 69
Arrasate	79 14 39
Aretxabaleta	79 10 52
Eskoriatza	79 03 22

ERTZAINZA

Arrasate	79 71 99
----------------	----------

SUHILTZAILAK

Udal taldea	79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua	79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea ..	78 28 00

MATXURAK

Urak (udal zerbitzua)	79 09 00
Elektrizitatea (iberduero)	79 05 81
Gasa	900 40 05 23
	79 78 44
	79 76 78

GARRAIOAK

Taxiak	79 12 22
P.E.S.A.	79 14 19

**HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO
ZENTRUAK**


Iturbide Egoitza	79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza	79 81 57

**KONTSUMITZAILEAREN ZAKO
INFORMAZIOA**

Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzaileen Elkarte	79 87 77
KIUB-OMIC	79 51 55

MONTERRONGO LIBURUTEGIA

Monterron	77 01 05
-----------------	----------



20

• • •

OSTIRALA

- Zinea: Alai: "Frankie and Johnny" (5-7.30-10).
- Goardiako farmazia: Irizar, Erguin.

21

• • •

LARUNBATA

- Zinea: Alai: "Frankie and Johnny" (5-7.30)
- Goardiako farmazia: Amezua, Santamaina.

22

• • •

IGANDEA

- Zinea: Alai: "Frankie and Johnny" (5-7-9.30)
- Haratuzteak 1992 argaz-

ki-erakusketaren azken eguna, Monterronen.

- Goardiako farmazia: Aurora Ruiz, Maala.

23

• • •

ASTELEHENA

- Zinea: Alai: "Frankie and Johnny" (7-9.30)
- San Andres herri eskolan Euskararen Astearen hasiera.
- Eskularen erakusketak Monterronen, hilaren 31a arte.
- Análisi Bioenergetiko ikastaro praktikoa, AEDn arratsaldeko 4etan.
- Goardiako farmazia: Morales, San Andres.

24

• • •

ASTEARTEA

- Zinea: Alai: "Frankie and Johnny" (7-9.30)
- Hitzaldia: Guatemalako *Comunidades Campesinas*-eko

egoerari buruzkoa. Monterronen 7.30etan. Komite Internazionalistak antolatuta.

- Goardiako farmazia: Azkoaga, Ferrerías.

25

• • •

ASTEAZKENA

- Goardiako farmazia: Español, Iturriotz.

26

• • •

OSTEGUNA

- Gantxilo ikastaroa; AEDn arratsaldeko 3etan.
- AEKjiraren inaugurazioa; arratsaldeko 7etan, Frantziskotarren kalistroetan.
- Goardiako farmazia: Corcuera, Musakola.



Pilota

• • •

- Deba Arroa txapelketaren barruan Arrasate - Aloña Mendia, igandean goizeko 11etatik aurrera Iturripen.

Saskibaloia

• • •

- Centraljet - Atletico SS saskibaloia partidua, Musakolako kiroldegian, larunbatean arratsaldeko 6etatik aurrera.

Hitzaldiak

• Guatemalarekiko elkartasuna

Guatemalako *Nekazai Komunitate*etako bi emakume izango dira Monterronen asteartean 7etan Komite Internazionalisten eskutik. Komunitate hauek ejerzitoarengandik ihes egindako talde organizatuak dira eta Euskal Herrian zehar beraien esperientzia azaltzen ari dira.




• Historia

Datorren asteartean Bergarako Kultur etxean eta historiari buruzko hitzaldien barne, "Bergarako gizartearen historia, industrializazio aurrean" deiturikoa izango da, Juan Madariaga hizlaria dela. 26an ere izango da beste bat, "Etxea, familia eta lana Bergaran" izenekoa. Gazteleraz izango da eta Alberto Santana izango da emalea. Hauez gain, beste lau izango dira, bat 31an eta besteak apirilaren hasieran.

Lehiaketa

• Literatura

Bergarako Udaleko euskeraz eta hezkuntza batzordeak literatura lehiaketa antolatu du. Apirilak 21 arte hartuko dira lanak udaletxean. Baldintzen artean, derrigorrezkoa da euskaraz idatzitako eta argitaragabeko lanak izatea.



Euskararen Astea

San Andres Herri Eskolan

San Andres Herri Eskolan euskararen astea burutuko dute datorren astelehenean, hilak 23tik, ostiralera arte. Hori dela eta, ikasle, guraso zein irakasleentzat, ekintza ugari antolatu da aste guztian zehar.


Astelehen goizean pelikula bat eta Pello Añorga ipuin kontalariaren emanaldia ikusteko aukera izango dute umeei. Gurasoek ere izango dute zer eginik, astelehen, astearte, asteazken eta ostegunean ziklo desberdinetako umeei egindako antzerki lanak ikus ahal izango dituzte eta. Pelikula eta antzezlanetatik aparte, aipagarriena ostegunean, hilak 26, goizeko hamarretatik aurrera egingo den bertsolari txapelketa izango litzateke. Egun berean, Jon Iñaki Izarzelaiak San Andres Herri Eskolan izango da, bere esperientziaren berri ematen eta umeen galderei erantzuteko prest.

Azken eguna, ostirala, ekintzaz beteta ageri da: pelikula, txisteak, bertsoak, herri kirolak... eta bukatzeko txokolatada mundiala. On egin!

Bidaia

• EXPOra autobusa

Oñatiko Udalak eta Gipuzkoako Foru Aldundiak Sevillara joateko bidaia antolatu du. Jadanik 30 eserleku erreserbatu ditu eta lekua gordetzeko 3.500 pezeta ordaindu beharra dago. Eskaintza 14 urtetik 24 urte bitarteko gazteei zuzenduta



dago. Bidaia maiatzean burutuko da eta lau egunetakoa 23.500 pezeta kostako da.

Deialdia

• Odolemataek

Arabako odol bankuak odola lortzeko kanpainarekin jarraitzen du. Datorren 23 eta 24an arratsaldeko 4.30etatik 8ak arte Arrasateko anbulategira jo dezakezue kanpaina honetan laguntzeko prest zaudetenok.

• 1934. urteko kintoak

Urte honetan jaio zineten guztioi dei bat egiten zaizue da-

torren martxoaren 28an ospatuko den bazkarirako zuen ize-na emateko. Eguerdiko ordubatean hasiko da ospakizuna mezarekin eta ondoren Udalpe Elkartearen bazkaria izango da. Izena *Bengoia* tabernan eta *Zangitu* paperdendan eman dezakezue.

Liburuak

• Monterron

Honako hauek dira otsailean liburutegirako ekarri dituzten liburu berriak

Literatura

Zhang, Xianliang. *La mitad del hombre es la mujer* (nobela)

Toro, Suso de. *Land Rover* (nobela)

Malerba, Luigi. *El fuego griego* (nobela)

Ibarguengoitia, Jorge. *Las muertas* (nobela)

Fallaci Oriana. *Insahallah* (nobela)

Faldbakken, Knut. *Diario de Adán* (nobela)

Gándara, Alejandro. *Ciegas esperanzas* (nobela, Nadal Saria 1992)

Erofeiev, Venedikt. *Muscú-Petushki* (nobela)

Perutz, Leo. *De noche bajo el puente de piedra* (nobela)

Narayan, R. K. *Esperando el Mahatma* (nobela)

Bestelakoak

Sacks, Oliver. *Veo una voz. Viaje al mundo de los sordos*

Euroagenda. *La llave del éxito en Europa (Ayudas, subvenciones, becas, ...)*

Satué, Francisco J. *Heavy Metal*

Guía oficial de Hoteles. España 1992

Laver, James. *Breve historia del traje y de la moda*

Kervasdoué, Anne de. *Cuestiones de mujeres, guía para las diferentes edades*

“.....
Zoroak egia esaten du, kontrakoa uste izan arren. Eta ni, arrazoirik ilunenengatik, esterminatu, pozoitu, mazpildu egin naute izenik eta banderarik ere merezi ez duen herri batetan. (...)

Arrasateko Zoroetxeak eta Kultura Ministeritzak bere patibulo izaera dute amankomunean. (...) Euskal Herria ardoarentzako herria da. Bihotzik gabeko mozkorren herria. Eta oso txistosoak gainera. (...) Hemen Arrasaten, 'electroshock'a sartu zidaten ilegal-ki, uste dut orain Gobernu Sozialistak debekatu egin dituela. Ia hil ninduten. Eta dena epaitara eramaten saiatu nintzelako.(...)

Errazagoa da 2000. urtean martetarrak lurreratzea, Euskal Herriak independentzia lortzea baino, hain EAJ erreakzionarioarekin gainera, independentziaren defendatzailetik nik Espainiaren defendatzailetik adina bait du horrek.

(Leopoldo Maria Panerok DV egunkarian. 1992-III-9)

“.....
CCOO, ELA eta UGTren akordioa batere ez zaigula gustatzen adierazi beharra dugu. Akordio instituzionala lortzeko dago pentsatua, grebaren autoerregulazio sindikalerako kode bat gorpuztera zuzenduta egon beharrean. (...) Akodio honekin gehiengodun hiru sindikatuek grebak erabat kontrolatzea lortu nahi da, eta hori ez dator guztiz bat euskal lanak bizi duen errealitate pluralagoarekin, batez ere helburua borrokatzea bada.

(Juan Ramon Garaik El Mundo egunkarian. 1992-III-7)

Nolakoa izan da aurrekontuak eztabaidatzeko prozesua?



Batzorde bakoitzak bere eskaria aurkeztu zuen. Eskariak eskuarteetan izanik, Hazienda Batzordean hainbat kezka azaldu genuen, gauza batzurekin ez geunden ados eta. Batzorde buruekin hitz egin genuen, baina bakoitzak berea defendatzen zuenez, eta prozesua luzetzen zihoanez, Gobernu Batzordea osatzen dugun alderdien artean bilera bat egin eta borradorea prestatu genuen. Joan den astean, Haziendan pasatu genuen borradore hori; nahiz eta adostasun osorik lortu ez, adostasun maila batera iritsi ginela esan daiteke. Borradore alderdi guztiei pasatu eta hilaren 23an biltzeko asmoa daukagu, sor daitezkeen emendakinak aztertu eta adostasuna lortzen den puntuak aurrekontuen aurreproiektuan sartzeko. 27an Udalaren osoko bilkura burutuko da eta han ikusiko da zer onartzen den eta zer ez.

Aurtengo aurrekontua 3.000 milioi ingurukoa da. Aurrekontuan nabarmen ageri dira ohizko gastuak, hezkuntza mailako inbertsioak eta beste inbertsioak. Ezadostasun handienak, pertsonal arloan, ikastetxeak LOGSEari egokitzeko eskaeran eta itzulpen zerbitzu famatuan egon daitezke. Diru iturri garrantzitsuenak, Udal zergak, Diputazioko dirulaguntza, subentzio eta kreditoetan oinarritzen dira, 400 milioi inguruko kredituan hain zuzen ere.

INO GARPALORO,
HAZIENDARAKO BATZORDEBURUA.

Berango



**Sukalde-altzariak,
mahaiak eta
aulkiak**

Erakusketa: Legarre pabiloia z/g, Gipuzkoa etorb. Tfnoa: 79 01 92 ARRASATE



**PINTURAK eta
PAPEREZTAPENAK**
Aragoi, 6-3. Esk.
ARRASATE Tfnoa: 77 00 39

**ELEKTRONIKA
ARTIKULUEN
SALMENTA**



J. Carlos Guerra, 1 Tfnoa: 79 91 64

Aramaio

• Barajuengo hilerria

Udaletxean aurkeztutako eskaeraren ondorioz eta guztien adoztasunaz, Barajuengo auzoko hilerria handitze-ko aurreproiektua aurkeztu zen azkenengo ohizko bilkuran. Bi aurrekontu desberdin bereizten dira: bata 1.100.000 pezetakoa eta bestea 975.000koa. Azkenik, Arabako Foru Aldundiari subentzioa eskatzea onartu zen.

• Musika entseiuak

Aramaio eta Arrasateko musikako talde batek, lokala eskatu du entseiatzeko. Momentuz ez zaio eskaera onartu ez bait du oinarrizko araua betetzen. Derrigorrezkotzat jotzen da taldearen erdia behintzat herrikoa izatea eta kasu honetan bat bakarrik da bertakoa.



Bergara

• Pintoreak Ortonovon

25 pintorek erakusketa bat egingo dute Genovako Ortonovo herrian, uztailetik irailera arte. Bidai hori bi herrien arteko elkartrukearen barruan sartzen da. Belaunaldi desberdinetako pintorek bere ibilbide artistikoa erakusteko une ezin hobea izango dute. Bergarako udalak miloi bat emango du gastu batzuk ordaintzeko.

• Erakusketa

Pasa den asteartetik zabalik dago Kultur Etxean eskuz eginiko lanen erakusketa. Lan hauek Pensiodunen Etxean eginikoak dira. Datozen bost egunetan lan ugari ikusteko aukera dago: pintura, makramea, gantxiloa, tapizak eta maketeria.

• Igeriketa

Hiru eta lau urteko umeentzat igeriketa ikastaroa antolatuta da. Datorren apirilean hasi eta maiatzarte luzatuko dira, astelehen eta ostegunetan. Izena emateko epea martxoaren 31an bukatzen da.

Oñati

• Ibilgailuen zerga

Apirilaren 15era arte, zabalik dago ibilgailuen gaineko zerga borondatez ordaintzeko epea zabalik dago. Hortik eta maiatzaren 30arte ordaindu ez duenei %5a igoko zaie. Epea amaitu ondoren, berriz, igoera %20koa izango da.

• Insonorizazioa

Udaletxean aurkeztu diren kejen ondorioz Udalak taberna eta pub desberdinen insonorizazio sistemak aztertuko ditu, eta zarata neurtzeko mekanismo berezia jarriko da martxan.

• Jaialdia

Datorren 28an, larunbatez Kepa Junkera eta Tapia eta Leturiaren jaialdia izango da Zubikoa kiroldegian. Gaueko 10.30etan, sarrerak 800 pezetetan daude salgai. Igandean, berriz, Oñatiko banda eta abesbatzaren kontzertuak izango dira. Bandak goizeko 12.30etan joko du eta abesbatzak arratsaldeko 7etan abestuko, biak ere Santa Anan.

IZAGIRRE
barategia

Bañez Dk., 18 ARRASATE
Tfnoa: 79 59 86

• **Txitxinpe** •

Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak


Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE Tfnoa: 79 67 76

HUETO Doktorea

**Eztarria, sudurra,
belarriak**

Ordua eskatzeko: 79 81 11
79 81 00

Olarte kalea, 43 Arrasate



EGVZKIGRAF

Grafikagintza. Tipografia. Offset industrialia
Basabe bidea, A-2 ARETXABALETA Tfnoa: 79 29 41

- Liburuak
- Aldizkariak
- Katalogoak
- Liburuskak
- Merkatal inprimakiak
- Bulegoko materiala

□ Bederatzi hilabeteko sententzia hamaika arrasatearrentzat

Joan den astean irten zen hamahiru gazteen kontrako sententzia, hauetatik 11 arrasatearrak dira. 1990eko ekainaren 26an San Juan jaietan izandako istiluengandik izan dira epaituak. Fiskalak hamahiru gazteentzat urtebete eta egun bateko gartzela-zigorra eskatzen zuen eta abokatu defendatzaileak, berri, absoluzioa. Azkenean irten da sententzia: bakoitzari 9 hilabeteko zigorra ezarri dio epaileak.

Drogomenpekotasunaren aurkako agiria

Arrasateko Lizarra Elkartek atera berri duen informazio agiri baten, drogomenpekotasunei buruzko argibide eta jarrerak azaltzen ditu. "Geroa zurea da" lemapean, zer eskaintzen duen eta interesdun edonora zuzendu azaltzen du. Alde batetik droga inguruan bizi den edozein edota bere senideak hurbildu daitezke zentrorra. Gainera telefonoz zein pertsonalki informazio osoa emateko prest daude. Arrasaten San Andreseko Doctor Bañez kalean du bere bulegoa eta informazio gehiagotarako telefono honetara dei egin dezakezue: 79 19 21.

ONGIETORRIA JAIÖBERRIEI

- Nerea eta Ainhoa* Otadui Garcia martxoaren 5ean.
- Iker* Langarika Garcia, 8an.
- Ane* Mariñenarena Fdez. de Ganboa, 9an.
- Andoni* Garai Nuin, 9an.
- Andrey* Gomez Paunero, 10ean.
- Ane Miren* Erraskin Aperribai, 11n.
- Jon Ander* Aguriondo Arregi, 11n.

ZORIONAK EZKONBERRIEI

- Alberto Elgezua & M^a Aranzazu*. Zulueta Martxoaren 14an, elizaz.
- Arantxa Irgoien & Juan Carlos Gomez de Segura*. 14an, elizaz.

Txandaka

MERTZEDARIAK OSASUN MUNDUAN

Apaltasun eta sinzeritate gus-tiz, Arrasateko osasun laneko arloan Mertzedarien presentziari buruzko azalpena eman nahi genuke.

Zentrua Arrasateko industria gunean dago kokatuta eta euren gaisotasunagatik beharrea dauden pertsonak atenditzen dira; Deba garaikoak eta inguruetaoak.

Ospitale horren barruan Kari-tateko Mertzedaria lekaimeen komunitate bat gaude bertako zerbitzu ezberdinetan lanean (Anbulategian, Harreran, Labo-rategian, Kirofanoan, Farmazian eta Solairuetan).

Egunez egun Eukaristiako ogiak elikatzen gaitu eta hartzen dugun indar horrekin Kristoren eta bere Elizaren misioaren jarraitzaile izan nahi dugu, Aita Zegriren, gure fundatzailearen, izpirituak animaturik. Osasun la-guntzaren esparru zabalean gu egotea eragiten duen sakoneko



Inazia Orbegozo (*)

arrazoia, humanitate erjari hitzarekin eta gure bizitzaren ere-duarekin Kristoren maitasun eta arreta, bere misterioa hainbeste aldiz defini-titu zuenaren le-kukotza argi eta ko-herentea eramatea, gaixoen sendakun-tzako lan gisa eta

atsekabetuentzako aringarri mo-duan.

Jainkoak dei egin digu eta gainera, ez gaixoei gorputzeko beharrianetan lagundu eta ser-bitzeko bakarrik, osotasunean kasu egiteko baizik. Euren bakardadetik askatzen saiatzen gara, eurekin gaudela jakinera-ziz, entzuteko zerbitzuan jartzen gara, euren gorputzeko minak arindu eta gaixoaren eta sanitate-ko langilegoaren artean harreman giroa sortuz, erabateko hurbilke-taren bidez.

Gure misio nagusia honako hau da: minaren mundua huma-nizatzea eta pertsonak osota-sunean zaintzea.

(*) MERTZEDARIA LEKAIMEA



ERRASTI KRISTALDEGIA
Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
akzesorioak

Olarte kalea, 47 behea. Tfnoak: 79 22 55 / 79 14 25

J. M. Heriz

Konpromezurik gabeko
aurrekontuak

Otalora Lizentziatua. Arrasate



Kaleko garbitzaileak ez daude guztiz ados mekanizazioarekin

Garbiketa mekanizatua onerako?

Jai egunak dira zikinenak kalegarbitzaileen ustez

Arrasaten, kaleko garbitasunaren enpresa arduraduna CESPADA da. 1990. urtean adjudikatu zizkion Udalak enpresa honi arlo honetako konpetentzia guztiak. 18 langilek, enkargatu batek eta bi txoferrek osatzen dute taldea. Tresneria aldetik erabiltzen den materiale guztia berria da, 1990ean erositakoa. Berriztapen batzuk sartu dituzte, garbitasuna mekanizatu egin da maila batean; kamioi irenslea, baldeatzailea, ura botatzeko kamioia, Nissan-a eta ikastetxeak garbitzeko kamioi txiki bat gehitu dira lehengo materiale multzora. Honek langile kopuru txikiagoa eskatzen du. Hala ere, kaleko garbitzaileak ez du begi onekin ikusten egin den aldaketa, "Honek ez dakar inolako hobekuntzarik, makina hauek ezin dira eta kale eta ezkina guztietatik pasa. Prozesu berri honen bidez, langile bati kale

gehiago ematen zaizkio eta makina garbitzailea ez bada laguntzera joaten, kaleak estuak direlako eta ezin iritsi delako, zikinkeria ez da inoiz desagertzen, pilatu baizik".

Erdiko kaleetan egunero egiten da garbitasuna baina auzoetan aldiz, txandaka, egun konkretu batzutan bakarrik. Jai egunak izaten dira zikinenak, aste-bukaerak, auzoetako jaiak edo zerbait berezia antolatzen denean. Kale eta toki aldetik jende mugimendu handiena dituzten kaleetan kontzentratzen da, jakina, zikinkeria gehiena, erdikoak.

Garbitzea gehien kostatzen dena zer den kalegarbitzaile bati galdetzean, "Gaur egun dena kostatzen da baina batez ere gauza txikiak eta lurtean pegatzen direnak: pipak, txikleak, goxokiak eta holako gauzak. Baina txarrena garbitu ezin daitekeena da: usaina".

Usteak uste

Martxoak 13 eta ostirala. Ordenagailuan birusa sartuko ote zaigun beldurrez. Eguna aurrera doa eta ez dugu ezer igarri. Oraingoan libratu gara... lasai asko dena jaso eta kalera. Gaur, ostirala!

Arratsaldeko zazpitan AEDren Batzar Nagusia ospatzen dugu, Monterroi jauregian. Nola erakutsiko digute ordu pare baten bakarrik urtean zehar eginiko hainbat eta hainbat lan? -galdetzen diot nere buruari.

Benetan zabal eta aberatsa euskararen alde azaldu diguten iazko ekintzen zerrenda: ATB, Arrasate Press, Euskalan, Jazten aldizkaria, udalekuak, larunbateroko ekintzak, konferentziak, literatur lehiaketak, bertso saioak, etabat. Ezin jaso lerro gutxi hauetan eginiko dena.

Pozgarri eta eskertzekoa. Zenbat ordu, zenbat sakrifizio, zenbat gazte lanean. Ez didazue sinistuko baina triste irten nintzen Batzar Nagusitik. Beti bakar batzuk, beti jende beñer lanean. Zer egiten dugu gainontzekook? A zer lotsa...! Eta zuk, irakurle, zer diozu? Euskarak behar zaitu, behar gaitu!

Ez ote dago ordenagailuen birusaren antzerakoa baina euskararen aldeko griñaz kutsatuko gaituenik?

JOSE RAMON ELORTZA

ITURRIOTZ taberna

GIRORIK

JATORRENA !!

Tfnoa: 79 16 04



**SAMEGO
GARBKETAK**

**Uriburu, 24
ARRASATE
Tfnoa: 79 70 39**

▣ **Alberto Encinas aske**

Joan zen ostiralean arratsaldeko 7etan Alberto Encinari harrera egin zitzaion Sebero Altuben. Bost hilabete espetxean pasa ondoren Arrasatera bueltatu da eta kontzentrazioan zehar hilabete hauetako esperientzia kontatu zuen. Bertan bildutako jendetzak txalotu eta lore sorta bat ere eskaini zion. Ondoren Kataiden afaria egin zen, Albertorekin batera, gutxigorabehera 60 lagunek osatutako taldeaz.

▣ **AEDko Batzar Orokorra**

Joan zen ostiralean egin zen Monterronen AEDko batzar nagusia, bazkide eta interesatu guztiak gonbidatuta. Agurraren ondoren, diru kontuen berri eman zen eta sail honetan Arrasate Press eta ATBrekin eraturako ARKOren sorrerak dakarren gastu-jeitsiera komentatu zen. Hirugarrenik, AEDko iharduera guztien berri eman zen, sail desberdinak kontutan hartuz: Kultura, Komunikabideak, Sentzibilizazioa eta Haurren ekintzak zehatz mehatz azalduz. Bestalde zuzendaritza batzordean izan diren berrikuntzak aipatu ziren, bertan sartu diren bosten izenak emanez: Eburne Mugika, Esteban Muruamendiartz, Erruke Alonso, Iñaki Aranburu eta Ruben Iñiguez. Hauetaz gain, irakaskuntzako ordezkari baten hutsunea bete gabe dago oraindik. Bostgarren puntuan urtearen jarraipen gisa balorazio bat egin zen eta azkenik bazkideen kanpaina aurkeztu.



Urtarrilaren hasieran Arrasateko INEMeko bulegoan 3.229 pertsona zeuden izena emanda

Langabeziari buruzko datuak

Ekainetik hona kopuruetan igoera txiki bat izan da

INEMeko bulegotik ateratako azken datuen arabera, Deba Garaian langabetu kopurua apurka-apurka goraka doa: 1990eko ekainean 3.167 langabetu zeuden, urtarrilaren hasieran, berriz, 3.229. Bailada utzi eta Arrasateko datuei begiratzuz gero ere, adierazgarria da gorakada: iazko ekainean 1.416 langabetu eta aurten urtarrilean 1.452.

Urtarrileko Arrasateko datuei dagozkien, behar bada, aipagarria izan daiteke 1.452 langabetuetatik 945 emakumezkoak direla eta gainontzeko

507ak gizonezkoak. Adin taldeen arabera, langabetu kopuru handiena 20 urtetik 25 urte bitartean legoke eta txikiena 50 urtetik gora. Iharduera konkretuei begiratzuz gero, metalgintza da langabetu gehien jasotzen duen alorra eta ostalaritza ondoren; langabetu gutxien, berriz, nekazaritza eta garraioen munduan kokatzen dira. Azkenik, ikasketak ere kontuan har daitezke, eta horren arabera, argi gelditzen da OHOTik gorako ikasketarik ez duenarentzat dela zailena lana aurkitzea.



Parques y Jardines

PARKE ETA LORATEGIEN
SORKUNTZA
LORAZAINTZAKO
MANTENIMENDUA ORO HAR
LANDARE-BIRSORKUNTZA
HIDROEREINTZAZ



Casa-Torre kalea. Tfnoa:94-681 90 82 ABADIÑO (BIZKAIA)



Arrasaten Udalak eta AEDk bultzatzen dute kanpaina hau.

“Etorkizuna euskaraz dator”

Euskarazko eredueta matrikulatzeko kanpaina

“Etorkizuna euskaraz dator” lema-ekin aurkeztu du Euskal Kulturaren Batzarrean (E.K.B.) hainbat herritan egingo den *euskarazko ereduaren aldeko kanpaina*, Arrasaten Udalak eta AEDk bultzatua. Martxoan aurrematrikula egiteko garaia denez, euskarazko ereduaren aldeko kanpaina burutzeko ere garai egokia da. Helburu nagusia, lehen aldiz matrikulatuko diren haurren gurasoek seme-alabentzat euskarazko irakaskuntza hauta dezaten kontzientziaztea izango da.

Euskarazko irakaskuntzan eginiko ikerketa eta ebaluaketek frogatzen dutenez, euskalduntzea lortu ahal izateko bide hau da egokia. Bestalde, guraso erdaldunen seme-alabentzat ere komenigarria litzateke eredu hori aukeratzea.

Kanpainen publizitatea ere egingo da eta, kartelak jarriko dira kale eta ikastetxeetan. Matrikulazioa egin behar duten gurasoek eskutitzak bidaliko zaizkie informazioa izan dezaten. Eritziak ezagutzeko kanpaina honi buruzko diptikoa ere banatuko da buzoietan.

Enpresari Txikien Elkarte

Jakina denez, Euskal Herrian enpresari txikientzat elkarte berri bat sortu da, Enpresari Txikien Elkarte izenekoa. Arrasaten enpresa txiki asko daude, baina oraindik bakar bat ere ez da elkarte horretako partaide. Horietakoren batek elkarte horretan partaide izan nahi balu, ondorengo telefono zenbakira deitzea besterik ez du egin behar: 62 82 22 eta Juan Antonio Legarretagatik galdetu.



Egonaldiak euskal familietan

Jaurilaritzako Kultura saileko Euskararen Sustapenerako Zuzendaritzak “Egonaldiak familia euskaldunetan” plangintza jarri du martxoan 1.992rako. Plangintza honetan parte hartu nahi duten familia arrasatearrek, honako helbide honetan eskatu dezakete informazio zabalagoa martxoaren 27a aurretik: Kultura Saila, Euskararen Sustapenerako Zuzendaritza, Wellingtongo Dukearen Kalea 2, 01011 Gasteiz.

Inpugnaziorik ez

Herriko egunkariaren batek asteartean beste zerbaite esan bazuen ere, Arrasateko PSOEk, asteazkena arte behintzat, ez du aurreko plenoan Udalak “Salto del Negro”ko gose-greba zela eta hartutako erabakiaren aurka inolako erreklamazio edo inpugnaziorik aurkeztu. Sozialistek errekurtsio hori jartzeko asmoa azaldu eta aldarrikatu dute, baina badirudi asmo hutsean gelditu dela.

SEGURTASUN-INJINERUTZA



Zure denda, lantegia, etxea, etab. **BABESTEN** ditugu **LAPURKETA** eta **SUTEEN** aurka
Legutianoko atea 35, Tfnoak: 26 34 77 eta 26 33 44 GASTEIZ

BURGALES JATETXEA

**Jaki goxoak eta
giro atsegina**

**Durana, 12
ARETXABAETA**



Egun hauetan **pibote berriak** ikusi izan ditugu Arrasateko kaleetan. Zaborbiltzaileen lana errazteko helburu nagusiarekin. Gune konkretuetan pibote hauek, zaborra uzteko tokia itxi egiten dute eta kotxeak aparkatzea ebitatu.



Joan den astean, **Miguel Prietok**, Gutxitu fisikoen loteria saltzen duenak, **Julen Arexolaleiba**, **Roberto Sanpedro "Pitote"**, **Karmelo Zubillaga "Junior"** eta **Aitor** izeneko beste bati zenbaki bana saldu eta milioi erdina eman zien. Hor dituzue, txekeak jasotzen.



Kooperatiben esperientzia ezagutzeko **amerikar eta kanadiar talde bat** izan dugu azken aste honetan Arrasaten. Hango herri pobreetan kooperatiben sistema ezartzeko aukerak aztertuz, Arrasateko Taldearen funtzionamendua jarraitu dute.

FAGOR



TALDE INDUSTRIAL KOOPERATIBOA

**GURE ESKUALDE ETA EUSKADIREN ZERBITZUAN
ELKARLANEAN ARITZEN DAKIEN AGERBIDEA**



DAMKAR'T

**Estetika eta Ileapaintzaile
Eskola
M.E.C.-ek homologatua**

Bittor Sarasketa, 7-3.
Tfnoak: 12 15 18 / 12 71 52 EIBAR

Izen
PROPIOAK

● Pasa den ostegunean banatu ziren argazki rallyko sariak lau guztira: multzo onenaren mailan **Jabier Ozaetak** 26 urteko arrasatearrak eskuratu zuen lehen saria eta bigarrena **Asier Lasak**, 17 urteko gazteak. Argazki onenaren sailan berriz, **Estitxu Unzurrunzaga** eta **Natalia Martinez**, U.B.I.ko ikasleek eginikoek irabazi zuten lehen saria eta bigarrena **Jabier Sanchezek** eskuratu zuen, 38 urteko arrasatearrak. Aipatutako guztiak lehen aldiz aurkeztu dituzte euren argazkiak, Jabier Ozaeta eta Jabi Sanchezek izan ezik.

● **Juan Luis Irazola** da bigarren mailako pilotari profesionaletako txapelduna. Ostiralean jokatu zen partidua Anoetan eta nahiz eta hasiera batean Irazolak Urrari tantu askotako bentaia atera, txapela estu izan zen azkenean, 22-21ean bukatuz.



Pasa den 9 eta 10ean jubilatuen mus, briska, tute, domino eta billar txapelketako finalak jokatu ziren. Argazkian ikusten direnak izan ziren irabazleek. Musean **Dionisio Arrizabalaga** eta **Pedro Etxabe**; briskan **Matilde Unda** eta **Pilar Arregi**; tutean Abaroako **Natividad Cortes** eta **Consuelo Cortes**; dominoan Tokiargiko **Jeronimo Moreno** eta **Esteban Cifuentes** eta bilarrean Iturbideko **Castor Uribe**.



◀ Haratuzteetako **argazki rallyko sariak** joan zen ostegunean banatu ziren Monterronen. Guztira 44 lan sorta aurkeztu dira aurten goan. Sariak Jabier Ozaetak, Estitxu Unzurrunzaga eta Natalia Martinezek, Asier Lasak eta Jabier Sanchezek eskuratu zituzten.



ZURE KONFIDANTZAZKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 ARRASATE Tfnoa: 79 27 27 / 79 13 55



Eskola Politeknikoan **21 lagunek osatutako tuna** dugu. Gehienak bertako ikasleak dira eta Arrasaten jotzeaz gain, inguruko beste herri batzutan ere jotzen dute: Bergara, Oñati eta abar. Ilunkara baten trasteak autora sartzen harrapatu genituen.



"Nortasun euskalduna" ikuspegi politikitik aztertzeko hitzaldi sorta batzuk antolatu ditu Biteri Egoitzak. Pasa den astean **Urralburu** egon zen eta aste honetan berriz **Alberto Pradera** eta **Buesa**. Hurrengo asteetan ere izango da gehiago. Denak Eskola Politeknikoko areto nagusian.



Iturripen sarraskiek ez dute mugarik, lehenik zuhaitzak izan ziren, ondoren petrilak eta oraingoan frontoi ondoan dagoen burnizko sarea. Argi ikusten denez burnizko sareari bultza egin eta lurrera bota zuten. Inguru horretan badabil zentzugabekoren bat, ez dago dudarik, burua bere lekuan duenak bestela horrelakorik!

LANDALUZE

AHATE-PRODUKTUAK
TERRINE DE FOIE BLOC
PARFAIT MAGRET CONFIT
ETXEN EGINIBO
AHATE-URDIAZPIKOA

Iturriotz, 7 ARRASATE Tfnoa: 79 14 86

**I
R
T
A
B
E
R
N
A**

Ferrerias kalea
ARRASATE
Tfnoa: 79 71 80



Ebita ezina

Atezainari ez zaio horrelakoetan zer egin handirik geratzen, aurrelariak egiten duen pasea harrapatzen saiatzea besterik. Argazkiko aukera horretan ere, atezainaren ahalegina alperrikoa gertatu zen eta baloiak ez zuen sareetarako bidean aurrera egiteko inolako eragozpenik izan. Saiatu behintzat egin zen.



ERROTA-GAIN Aluminioak

Aluminiozko leihoak
(haustura termikoa)
eta PVC

Altos Hornos-Azkarruntz auzoa BERGARA Tfnoa: 76 32 40 Faxa: 76 32 41



A taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Fosforos	4	4	0	0	25	8	8
Argi Ibili	4	3	1	0	24	6	7
Fasprint	4	2	1	1	16	15	5
Los Heredia	4	2	1	1	16	11	5
Kajoi Taberna	4	1	1	2	11	14	3
Hirei	4	1	0	3	12	24	2
La Banda	4	1	0	3	10	19	2
Notxingan Flo	4	0	0	4	5	22	0
Totala	32	14	4	14	119	119	32

B taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
Adelaida	4	4	0	0	28	7	8
Akaitegi Express	4	3	1	0	26	9	7
Danok Lagun	4	3	0	1	14	9	6
Arrasate Kirolak	4	2	1	1	16	16	5
Gnu Seg. Bilbao	4	1	2	1	12	12	4
Adobe	4	1	0	3	11	25	2
AEK	4	0	0	4	7	23	0
Los Motz	4	0	0	4	12	25	0
Totala	32	14	4	14	126	126	32

C taldea

	Partiduak				Golak		Punt.
	Jokat.	Irab.	Berd.	Gald.	Alde	Aurk.	guzt.
G. P. Noski	4	3	1	0	14	9	7
V. C. Daglas	4	2	2	0	12	8	6
Lorategi Potroak	4	3	0	1	19	10	6
Artzankos Udal.	4	1	2	1	16	11	4
Pepelus	4	1	1	2	10	10	3
Diego Antonio	4	1	1	2	15	21	3
Jo ta akabau	4	1	0	3	9	21	2
Zulu's	4	0	1	3	13	18	1
Totala	32	12	8	12	108	108	32

B multzoan izan ezik, beste bietan izan dira aldaketak, eta ez nolana hikoak gainera. A multzoan, Fosforosek lidergoari eusten dio eta Argi Ibili eta Los Heredia taldeen arteko berdintasunik ez dago jadanik, Los Heredia taldeak Fasprint-en aurka galdu egin zuen eta. B multzoan, gauzak lehengoan daude, Adelaida eta Akaitegi Express dira indartsuenak eta. C multzoan, G. P. Noski taldeak lidergoan jarraitzen du, baina aldaketa txiki bat izan da, V. C. Daglas eta Lorategi Potroaken aukeraz gain, Artzankos Udalaizena ere kontuan hartzekoa da, poliki-poliki sailkapenean gora doa eta.




Adobe: Guti, Juanpe, Joseba, Josu, Jabi, Astrai, Mikel Luengo eta Txanana.



A. Kirolak: J. Miguel, Ugarte "Txamo", Largarxoa, Sandro, Carrasco, Ugarte, Andoni, German, Boni eta Karlos.

JMA



Ate inguruan faltaren bat bota behar denean normalean atezainak hesia jartzea agintzen du. Teorian, hesi hori ez litzateke mugitu behar, nahiz eta jaurtiketa gogorra izan. Hala ere, zail izaten da baloia muturrera etor daiteke-ela ikusi eta bertan geldirik egotea. Normalena, argazkikoa, buelta hartzea.

EMAITZAK

A taldea

La Banda 5 Kajoi 4
Argi Ibilii 8 Notxingan 0
Hirei 3 Fosforos 7
Los Heredia 3 Fasprint 6

C taldea

Diego Antonio 10 Jo ta akabau 1
Artzankos 2 G. P. Noski 2
V. C. Daglas 2 Pepelus 1
Lorategi Potroak 6 Zulus 5

B taldea

AEK 2 Adelaida 8
Danok Lagun 6 Adobe 1
Gnu. Seg. Bilbao 6 A. Kirolak 6
Akaitegi Expres 10 Los Motz 3



Lorategi
Kafetegia

Iturriotz, 7 Tfnoa: 79 04 67
ARRASATE

ESKIÑA
taberna

Goizeko 7etan
zabaltzen dugu

Olarte, 25
ARRASATE
Tfno: 79 20 20

Jovi

Ferrerias, 35 ARRASATE Tfnoa: 79 12 87

Pintura ekologikoak
Diferentzia: zure osasuna

Zoru arinak. Saipolan. Ceflex. Neurritarako felpudoak. Pertsiana biribilkagarriak. Ehunezko hormatakoak. Kortxoa. Moketa losetan.

IOSEBA KONTENEDOREAK



Uriburu, 23. 4.a eskuma.
Tfnoa: 79 61 18

ARRASATE

RUMBA
taberna

Iturriotz Kalea
ARRASATE



Txutak

ZUBIAN JAI

Goleada handien edo gol askoren ihardunaldia izan zen joan den asteburukoa: *Argi Ibilik* 8 gol, *Fosforos*-ek 7, *Akaitegi Expres*-ek 10 gol, *Adelaida Haizeak* 8 eta *Diego Antoniok* 10. Emaitza horien arabera, bigarren fasea baino, lehenengoa dirudi, ez dirudi normala talde batetik bestera hainbeste diferentzia izatea. Bi martxako txapelketaren ondorioa izango da seguruen.

Asteburu honetan, San Jose eguneko zubia dela eta ez dela, ez da partidorik izango. Beraz, jende gehienak bezala, Zaldibarko Txapelketan dabilzanak jai hartzeko aukera izango dute.

Datorren asteburuan jokatu beharreko partiduetan erabakiorrak izan daitezke, edo gutxienez gauzak erabat argitu ditzaketenak. A multzoan, *Los Herediak Kajoirekin* jokatu du eta ikusiko da gora edo behera egiteko taldea den; era berean bi lehen taldeen arteko, *Argi Ibilik* eta *Fosforos*en arteko partida jokatu da. C multzoan, gauza bera gertatu da, bi lehen sailkatuen arteko norgehiagoka, *Video Club Daglas* eta *G. P. Noskiren* arteko norgehiagoka, hain zuzen ere. Hortik aterako da multzo honetako talde indartsuenaren izena. B multzoan, berriz, ez dirudi aparteko nobedaderik izango denik eta orain sailkapeneko lehen postuetan daudenak irabazle atera beharko lirateke.

BEÑARDO KORTABARRIA

DATORREN ASTEAN

A taldea

La Banda Fasprint
Argi Ibili Fosforos
Hirei Notxingan Flores
Los Heredia Kajoitaberna

B taldea

AEK Arrasate Kirolak
Danok Lagun Los Motz
Gnu. Seg. Bilbao Adelaida
Akaitegi Expres Adobe

C taldea

Diego Antonio Zulu's
Artzankos Pepelu's
V. C. Daglas G. P. Noski
Lorategi Potroak Jo ta akabau



EGIDO

Automobilarentzako
ordezko piezak

Legarre Pabiloia.
ARRASATE Tfnoa: 79 62 11

• **Arimazuri** •
dastapenak
ZABALIK GOIZEKO
Setatik

Arimazuri plaza / Loramendi, 6
ARRASATE Tfnoa: 79 80 44

GOROSTI
Jatetxea

Arimazuri plaza, ARRASATE
Tfnoa: 77 06 07

LIZARRA
taberna

Leintzibar kalea, 2
ARRASATE
Tfnoa: 79 72 35

AGUSTIN

Auto-soinua
Karburaioa
Autoarentzako
osagarriak

Uribarri Etorbidea, 16
ARRASATE 79 73 58

Violet Gellenbeck, *Gitksan Wet Suwet* tribuko indiar kanadiarra da.

Beste iparramerikar askorekin Arrasaten izan da, kooperatibak ikusi eta Euskal Herriari buruzko zenbait xehetasun jakin guran. Hemen egin duen egonaldian, bere herriaren etorkizuna hobetu dezaketen bideen bila ibili da. Izan ere, estatu garatu eta aberats bateko partaide izan arren, Violeten herriaren egoera ez da bat ere ona.

— Zeren bila, Violet?

— Kooperatiben mugimendua ikertzeraz etorri naiz, jendeak kooperatibak antolatzeke egin duen ahalegina ikusi eta era berean kooperatibek izan duten eboluzioa ezagutzeko. Uste dut bidaia honetan ikasitako zenbait gauza nire herriari ondo etorriko zaizkiola, garapena ezinbestekoa zaigu eta.

— Hain egoera txarrean bizi zarete?

— Indiarrak, benetan bertako bakarrak, erreserban sartuta gauzate eta ia ez dugu lurrik, erreserba oso txikia da eta; gainera, legeak ez digu erreserbatik kanpo bizi izateko aukerarik eskaintzen. Egun batean gizon zuria iritsi zen eta betidanik gureak izan diren lurrez jabetu zen, garai batean ehiza edo arrantzarako ziren lurrez. Geurea den lurra berreskuratu nahian gabilta.

— Eta zela egingo duzue?

— “The Gitksan and Wet’suwet’en Tribal Council Association” elkartearen antolatuta gaude eta dagoneko, geure lurra itzultzeko epategietan eskari legalak egiten ari gara. Holandako La Hayako tribunaletara jozteko asmoak ere baditugu.

Bestalde, lurra ostu ziz-

Violet Gellenbeck

Indiarraren harrotasunaren erakusle



kigutenetik gaurdaino gertatu den guztia jasotzen den liburu mardul bat prestatu dugu, behar den tokietan aurkezteko. Liburu horretan argi agertzen da indiarron kultura eta bizitza nolakoak izan diren.

— Lurra garrantzi handia du zuentzat, ezta?

— Bai, jakina. Lurra geure kultura bera da. Herri bezala garatu nahi badugu, ekonomia, kultura eta gizarte mailan, ezinbestekoa zaigu lurra berreskuratzea, geure kontu bizitzeko. Geure lurra gobernatzeko eskubidea lortu nahi

dugu, geure legeak egin, egunero sor daitezkeen arazoak, txiki zein handiak, geure erara konpontzeko. Azken finean, bizitzako arlo guztietan autosufiziente izan nahi dugu.

— Hemen topatu duzu han erabiltzeko tresnarik?

— Ez dago diferentzia handiegirik nire herriak bizi izateko duen eran eta kooperatiben mugimenduen artean, guk ere erabaki guztiak kontsentsoaren bidez hartzen ditugu eta.

Bestalde, euskaldunen gizartea eta gurea, garai ba-

tean behintzat, ez ziren hain desberdinak, matriarkadoaren oinarrian antolatuta geunden eta. Hemen ikasitakorik han ezarri ahal izango dudana? ba ez dakit, osotasunean seguru ez, baina gauza batzuk aprobetxatuko ditugu, duda barik. Hemen go baldintzak eta hangoak antzerakoak izanik, zergatik bizi gara gu hirugarren munduko egoeran eta hemen gizarte aurreratu batean? Poliki-poliki ekin beharko diogu bideari, proiektu txikiak abiatuta.

— Gizon zuria aipatu duzu lehen; indioarekiko arrazakeriarik bada oraindik?

— Bai, baina nire herria ez da inoiz gizon zuriaren aginduetara makurtuta biziko, ez eta beste edozein gizonen aginduetara ere. Urte asko dira gizon zuria iritsi zela, kultura kendu, hizkuntza debekatu eta umeak lapurtu zizkigun, baina berriro herria egiten ari gara.

— Hizkuntzaren egoera zelakoa da?

— Azken urteetan baino hobea. Belaunaldi batean, debekuak eta sarraskiak medio, desagertu egin zen eta jende horrek ez daki hitz egiten. Dena dela, orain geure eskolak ere baditugu eta hizkuntza indartzen ari gara: 12.000 lagun izango gara eta 10.000 bat gai da arbasoen hizkuntzan berba egiteko.

— V. Urteurren famatua?

— Ez du zer ikusirik gurekin, zurien gauza da. Hura kolonizazio hutsa izan zen eta seguruen protesta mugimenduren bat izango da.

— Zer kontatuko diezu herrikideei Arrasateri buruz?

— Ikusi eta entzundakoa, besterik ez. Denbora gehiago geldituko nintzateke gus-tora, joan beharra daukat baina egunen batean itzuliko naiz.

“**Nire herria ez da inoiz gizon zuriaren aginduetara makurtuta biziko...**”

Basamutilak: indartuz doan lanbidea

“Dorlas” kooperatiba orain dela hiru urte sortu zen. Lau gaztek osatzen dute gaur egun, eta urte hauetan lan gehiena Diputaziorako egin dute. Horiez gain, herri guztietan daude basomutil taldeak, partikularrentzat edo enpresentzat lan egiten dutenak.

Beste lanik ez

Ez genuen beste ir-
tenbiderik ikusten,
lantegietan ez zegoen ezer
eta basoetan lan ugari. Jen-
de gutxi dabil lan honetan, ez
da eta gehiegi gustatzen den
lana, horregatik sartu gi-
nen”. Gatzagako Jose da be-
teranoena, eta azken 7 urte
hauetan basoan ibili izan da
lanean. Gaur egun, lau lagu-
nek osatzen dute “Dorlas”
lantalea eta ondasun komu-
nitate bezala kooperatiba
sortu beharrean aurkitu dira.
Lan gehiena Diputaziorako
egiten dute inguruko herrie-
tan batez ere: Gatzagan, Es-
koriaztan, Bergaran, Aretxa-
baletan... Lan gehien Oñatin
eta Gatzagan izaten dute eta
gutxien Arrasaten.

Eguneko argiaren muga

Lan bat aurkeztu ondo-
ren, aztertu, prezioak
eztabaidatu eta... lanera;
tresnak aukeratu, Land Ro-
verrean sartu eta mendiruntz

abiatu, paraje ezezagunen
bila. Uda zein negu, eguzki
zein euri, hor ibili behar,
eguneko argiaren muga
bakarrekin. “Baldintzen
artean, egunaren argi-or-
duek asko mugatzen gaituz-
te, neguan udan baino ordu
gutxiagoz egiten dugu lan”.
Egun normal baten, goizeko
7.30etan irten eta arratsalde-

ko 7ak, edo egun batzutan
8ak arte, ez dira bueltatzen;
eguna zabaltzen duenetik
ilundu arte. Hamarretakoa eta
bartzakia etxetik eraman be-
har izaten dute eta eguna la-
naren arbera antolatuz, guz-
tira 12 ordu pasatzen dituzte
mendian, horietatik 9 lanean.
“Lana ez da txarra, baina
bai arriskutsua; kontu han-

dia izan behar da, pinuak
botatzen gabiltzanetan batez
ere”. Motoserrarekin eduki
behar izaten dute kontu han-
dia. Baina eguneko lehen
orduak gauza da, hortik
aurrera eguneroko monoto-
nian sartzen dira. Lan egite-
ko zuhaitz onena pinua da
eta pagoa txarrena, askoz
gogorragoa da eta. Horrez
gain, beste lan batzuk baino
askoz entretenigarriagoa
izatea aipatzen dute alde on
moduan.

Lanerako gogoia

Prestakuntza aldetik, la-
nerako gogoia da beha-
rrezkoena; bestelakoak la-
nean ikasten dira. Basogin-
tzako enpresa batzutan, la-
naren arabera esperientzia
eskatzten dute, gauza be-
rezietarako. Jantziak bakoit-
zak etxetik eramaten ditu;
dendetan saltzen dira ekipo
berezi batzuk, baina gastu bat
dira eta gainera ez dituzte
beharrezko ikusten. Erabil-
tzen duten tresneria ere euren
kontu doa eta kooperatibak
berak erosten ditu beha-
rrezkoak diren materiale
guztiak: podatzeko serrak,



Lagunarengandik gertu lan egiteak berebiziko garrantzia dauka mendian.



Lana gogorra izanda ere, atsedean eta elkarrizketarako denbora hartzen dute noiz behinka.

garbitzeko desbrozadorak, motoserrak.

Konpentsatzen ote du soldata eta irabazi aldetik? "Ez, ez dugu asko kobratzen nahiz eta prezioak urtero zerbait igo. Beno, irabaziak ateratzen dira, baina deklaratu beharrarekin...! Azkenean soldata normala geratzen zaigu, bizi izateko na-

hikoa, ez gehiago ez gutxiago".

Gehigarria: suteak

Diputazioak suteak zaindu eta itzaltzeko mekanismo bat ere jarri du martxan. "Dorlas" kooperatibakoek, komunikazioa mantentzen dute irrati bidez, su-

tea izaten denean laguntzera joateko. "Horrek diru extra bat ematen digu, gehigarri bat da guretzat eta gainera ondo dago kolaboratzea ere". Beste batzutan, basoz baso eta tokatzen denean zaintzaile modura ibiltzen dira bai egunez, bai gauez, suteak kontrolatzen. Basozainekin izaten dute kontak-

tu gehien; lanean hasteko, berak zehazten die lana eta tokia eta edozein motatako informazioa lortu.

Denbora librea

Asteko 5 egunetan 12 ordu basoan pasa eta gero, larunbat eta igandetan jai izaten dute, "Egun horiek sakratuak dira". Oporrak berriz, ahal dutenean hartzen dituzte, lan gutxien dagonean, baina ez dute data fijo-rik izaten. Pasa den urtean esate baterako irailean hartu zituzten 20 egun. Egun libre horietan ez dute baso lurrik zapaltzen, kanpora joatea nahiago izaten dute gehienek, "Normalean kostaldera edo kanpora joaten gara. Lehen bai, bagenuen ohitura mendira joateko, baina orain oso gutxi". Euren ohituretan ere izan du basoak eragina.

Oihartzuna

Gizarte mailan, basomutilen lana ez dago oso baloratuta ez eta ondo ikusita ez, sektore batzutan behintzat. Orohar, gehienoi ezezagunak egiten zaizkigu lan horiek, pentsa ere ez dugu egiten inor hortan ibiliko denik, baina errealitatea horrela da, basoak hor daude, denon ondarea dira eta norbaitek zaindu behar ditu. Pentsatzen dugun baino prozesu luzeagoa du mendia zaintzeak eta askotan landareak sartu eta bertan behera uzten dira, inolako jarraipenik egin gabe. Horregatik, jai egun batean mendiruntz abiatzen garenean mendiko isiltasunean murgilduz, pentsa eta mirets dezagun momentu batez mutil talde hauen lana.

Beharbada goiko erakundeetatik ekimen gehiago egon beharko litzateke, partikular edo udalek gauza gutxi egin dezakete. Izan ere, hasi dira jadanik arlo honetan pixka bat mugitzen.



Umentzako moda

Ferrerias Kalea, 34
ARRASATE Tfnoa: 79 97 86





Bi arrasatear Himalayako Ama Dablang-era

Txus Martin eta Jabi Zubiaga arrasatearrak, iraila-urria tartean Himalaya mendi-kateko Ama Dablang gailurra igotzekotan dira. Gailur honek 7.000 metro baino gehiago ditu eta arrasatearrak diotenez, altueraz ez horrenbeste, baina teknikoki nahiko zaila omen da. Martin eta Zubiagaren asmoa Arrasatetik abuztuaren azken aldera irtetea da, eta gailurrerako saiakerak iraila-urria tartean egitea. Bidaia honetarako, 2.000.000 PTako aurrekontua dute arrasatearrek, 4 edo 5 porteadoreren laguntza kontratatzeko aukera emango diena.

Pirineotan, Alpetan, Marokoko mendietan, Andetan, Europako Pikoetan eta abarretan makina bat ordu sartu dituzte bi arrasatearrek... orain Himalayaren txanda. Txus Martin eta Jabi Zubiagaren ahalegina lagundu nahi dutenek, badute horretarako aukera salgai jarri dituzten kamisetak erosiz.



Pala txapelketaren finala

Joan den larunbatean eskualdeko pala txapelketaren finala eta finalerdia burutu ziren Musakolako frontoian. Finalean, alde batetik Arbulu - Azkarate antzuolarrak; bestetik, Valor arrasatearra eta Zabalo antzuolarra. Azkenean, borroka gogor baten ondoren, arrasatearra eta antzuolarra nagusi: 45 - 43. Argazkian, finalerdietan parte hartu zuten jokalariekin batera.

Hurrengo partidua

Beno, azkenean badauz gauzak poliki-poliki argitzen, txarrerako bada ere. Mondrak joan den igandean etxean galdu zuen, Zallaren aurka eta emaitza horren ondorioz, oraindik partidu asko gelditzen badira ere, lau lehenengo artean sartzeko aukerei agur esateko moduan dira arrasatearrak.

Igandeko partidua txarra izan zen, batzuen zein besteen aldetik, baina, behintzat gola lortu eta gero, komeni zitzairen jokoa egin zuten bizkaitarrek. Mondrak ez zuen ez, joku onik eskaini, eta joku eskasia horren arrazoiaren artean ia astero-astero lerro hauetan aipatzen dena: ezin sekula talde bera zelairatu.

Era batera edo bestera, dagoeneko Mondra negatiboan erresuman sartuta dabil eta azken aldean ikusitakoak ikusita, zulo horretatik irteteko esperantza handi barik.

Hurrengo partiduan mondragoetarrek Lagun Onak izango dute arerio, sailkapenean atzetik hasita hirugarren doan taldea. Azpeitiara joango dira arrasatearrak eta teoriaran garaipenarekin itzuli beharko dira, baina gauzak nola dauden ikusita, ez dago fidatzerik.



FANCY

GAZTEEN MODA! Bizkaia Etorbidea, 1 Etxabea ARRASATE Tfnoa: 77 14 24

beatriz

oinetakoak eta poltsak

Erdiko kale, 11
Tfnoa: 79 14 3 ARRASATE

PODIUMA

Jubilatuak igeriketa ikasten



Chelo Cortés, 62 urte; Nati Cortés, 64 urte; Josefina Madinabeitia, 67 urte; Felisa Ezkurra, 71 urte; Josefina Ezkurra, 63 urte; Kristina Perez, 53 urte; Faustino Pazo, 63 urte eta Juanito Perez 67 urte. Aipatutako zortzi lagunak hilabete daramate, Jose Luis Elexpuren agindupean, Muskolako kiroldegiko igerilekuan igeriketa ikasten. *"Hasieran -diote ia ahobatez - izugarritzko beldurra genion urari, inoiz pizinan ibili gabe-koak ginen eta. Orain, apur bat kendu zaigu beldur hori, baina pizina txikiago balitz, seguruen azkarrago ikasiko genuen. Kiroldegiko igerilekua itxita egon zenean Aretxabaletara joan ginen eta baita primeran ibili ere, han ura lepotik gora ez zitzaigun iristen eta"*. Igeri egitea oso ona zela eta Abaroako gizarte laguntzaileak, Elenak, bultzatu zituen zortzi lagun hauek igeri ikastaroetara. *"Ez zitzaion arrazoirik falta, pizinararen etortzen garenetik hezurretakoa gaitz guztiak desagertu zaizkigu, osasunez askoz ere hobeto gabiltza. Gainera, irakaslea oso ona da, pazientzia handikoa eta ez dugu problemarik izan."*

Asko kostatu zaigun? horixe, baina egindakoa ontzat jo behar".

Oraingoz igeriketa estilo bakar bat ikasi dute, baina gainontzeko estiloguztiak ikasteko asmotan dabilta. Ea inoiz lagatzerik pentsatu duten galdetu eta ezetz diote, asteburu osoa astelehena noiz iritsi egoten direla. Kolore arrosadun iharduera gutxi daude mundu honetan eta ikastaroari buruzko kexu txikitxo bat ere badute, batez ere emakumeek *"Ura hotzegia egoten da, zertxobait epelagoa behar luke. Danak ez, baina gehienok ur hotzaren eraginez katarroren bat harrapatu dugu"*. Zortzi lagun hauen poza eta osasunaren hobetzea ez da nolana pasatu jubila-tuen artean eta dagoeneko badute jarraitzaile igeriketa ikastaroan. *"Gaur bertan hasi da beste kuadrila bat, geuk animatuta noski. Geu ere, lehenago hasi bagina askoz hobeto, baina tira, horrek ez dauka bueltarik eta zer egingo diogu bada? dakiguna hobeto ikasi eta beste estiloaz jabetu arte hementxe ibili, besterik ez."*

◆ Hasiera ona kopan

Mondrako emakumezkoen taldeak joan den asteburuan eman zion hasiera kopa txapelketari, eta ondo baino hobeto eman ere, Urretxun jokaturako partiduan, etxeko taldearen aurka 9 eta 0 irabazi zuten eta. Arrasatearraren taldean Urretxu, Anaitasuna, Aretxabaleta eta Zumaiako taldeak daude; teoriarik, mondragotarrek ez lukete eragozpenik izan behar talde horretako lehen postua eskuratzeko.

◆ Neskak ondo mutilak gaizki

Gizonezkoen Centraljet ez dabil bat ere ondo igoerako fasean. Bilboko Patronatoaren aurka jokatu zuen joan den asteburuan eta aurrez garaipenean pentsa zitekeen, baina partiduan erraztasunez nagusitu ziren bizkaitarrak, 76-59.

Centraljet-eko neskek ez zuten bat ere lan errazik Donosti taldearen aurrean, baina azkenean, partidu on bat eginez, irabaztea lortu zuten: 55 - 53. Denboraldi bikaina burutzen ari da Centraljet-eko emakumezkoen taldea.

◆ Cnes. Brues

Construcciones Brues futbito taldeak ez zuen arazorik izan Gasteizeko Fendt Cariñ taldeari irabazteko 5 eta 2ko emaitzaz. Emaitza horri esker, arrasatearrak oraindik Bar Marino liderrarengandik bi puntuetara daude eta lehen postua eskuratzeko aukerak dauzkate.

◆ Iñigo Roldan bigarren

Oreretan burututako lasterketan Iñigo Roldanek bigarren postua lortu zuen. Atxabaltarrak izugarritzko lasterketa egin zuen, Aitor Osarekin batera aldegin zuen, baina helmugarako hiru kilometro falta zirela ezin izan zion bere lagunaren erritmoari jarraitu eta helmugan Itziarko txirindularia baino hamazortzi segundu beranduago sartu zen.

"PAL"

burdindegia,
brikolage
eta tresneria

Uribarri etorbidea, 3
Tfnoa: 79 31 99



PAZI-OLA S.A.

GALDARAGINTZAKO LANTEGIA

Zaldispes kalea, 2 ARRASATE Tfnoa 79 29 91

Arrasateko Ikase

• *Bagara, ez gara, goazen Ikastetxe Publikoetara* •

Arrasateko Batxilergo Institutua

Ikastetxe publikoa
1992-93 ikasturtea

IKASKETA ESKAINTZA

Batxilergoko 3 kurtso eta UBI.

Ohizko irakasgaietz gain, aukerakoak honakoak dira:

- 1.BBB: Frantsesa-Ingelesa
- 2.BBB: Erlijioa-Etika / L.T.P.: Elikadura, diseinua, informatika
- 3.BBB: Aurrekoak eta ondorengoak:
 - A. Zientzia arloa
 - B. Letra arloa
 - C. Zientzia-letra arloa
- U.B.I.:
 - A.Zientzia-teknologia arloa
 - B. Arlo bio-sanitarioa
 - C. Giza arloa
 - D. Linguistika arloa

EZAUGARRI OROKORRAK

- Inguruko batxilergo-eskola bakarra
- Euskal eta erdal adarrak maila guztietan
- Irakasgai bakoitzeko irakasle lizentziadunak
- Ordu-tegi trinkoa: goizeko 8.30etatik arratsaldeko 3ak arte.
- Eskolaz kanpoko ekintzak: zinema, antzerkia, txangoak, argazkilaritza, kirolak: saskibaloia, igeriketa, ski-astea..

EKIPAMENDUA


Informatika gela, fisika, kimika, natur zientzia eta argazkilaritzako laborategiak, gimnasioa, bideo gelak, liburutegia.

AURREINSKRIPZIO EPEA

Maiatzaren 15etik 30era bitartean.

Tfnoa: 79 44 47-37

MATRIKULA DOHAINIK



Musakolako Institutua

Setxe Publikoak

- *Haurrak haur bereizkeriarik gabe,
herri eskolan dudarik gabe* •

Arrasateko Herri Eskolak

MATRIKULA-EPEA IREKI DA

ESKAINTZEN DUGUNA:

IRAKASTEKO EREDUAK

- ✓ Inmertsioa
- ✓ D Eredua
- ✓ B Eredua

IRAKASLEGO ESPEZIALIZATUA

Informatika, Ingelesa, Hezkuntza berezia,
Soinketa eta Musika.

PEDAGOGIKOKI

Talde multiprofesionala eta
P.A.T. aholkuak.

ESKOLAZ KANPOKO EKINTZAK


Guraso Elkarteekin laguntzarekin.
Multikirola, zinemaldiak, esku-lanak,
argazkigintza eta bestelako ikastaroak.
Tailerrak (Kontsumoa, ingurugiroa,
drogomenpekotasuna, sexualitatea, aisia,
goxoki tailerra...)

BESTE ZENBAIT ZERBITZU

Jangela eta garraioa
Laborategia eta Liburutegia

Informazioa osatu nahi baduzu,
dei egin ezazu:

- Erguin: 79 77 74
- S.Andres: 79 00 44
- Musakola: 79 04 49



San Andres



Erguin



Musakola

Haratuzteetako argazki rallya

Haratuzteetako argazki rallyan berrogeitalau pertsonak parte hartu bazuten ere, hemen ezin aurkeztutako lan guztien azalpenik egin. Derrigorrezkoa zen aukeraketa eta aukeratzekotan, zergatik ez epai-mahaiak egin zuen aukeraketa bera? Alde batetik lehiaketa irabazi zuenaren Jabier Ozaetaren argazkiak eta bigarrenarenak Asier Lasarenak; bestetik, argazki onena, Estitxu Unzurrunzagarena eta bigarren argazkirik onena, Jabier Sanchezena.



Argazkirik onena. Estitxu Unzurrunzaga eta Natalia Martinez



Bigarren argazkirik onena. Jabier Sanchez




Multzorik oneneko bi. Jabier Ozaeta



Bigarren multzorik oneneko bi. Asier Lasa

◆ **AEKjira Arrasaten**

Martxotik aurrera Euskal Herri osoan burutuko den erakusketa dugu AEKjira. Kanpainaren helburuak bi dira batez ere: lan dozentebat burutzea eta AEKren aportazioa erakustea. Euskal kultura segitzeko erakusketen bidez, hainbat eta hainbat herritan kultur ekitaldi ugari burutuko dira, Arrasaten ere. Izan ere, 26an inauguratuko da ekitaldia. Arratsaldeko 7etan herriko bertsolariak, dantzariak, trikitilariak eta merienda bat izango da Frantziskotarren aretoan. 27an berriz, Tolosaldeko sagardotegian izango da afaria eta bertara joateko autobusak antolatuko dira. Interesatu guztiek eman dezakete izena. Bestalde 28an, larunbatean, haur jolasak eta herri animazioa izango da Seber Altuben. Igandean Txinparta taldearekin erromeria izango da, arratsaldeko 7etan Seber Altuben. Azkenik, kanpainari amaiera emateko konzertua Gaztetxean: E.H. Sukarra, SS 77 eta Sutagar taldeek izango dira gonbidatuak



Jabier Ozaeta

Bere kabuz argazkilari eginda

Jabier Ozaeta izan da Haratuzteetako argazki-rallyeko irabazlea. Askok beste zerbait pentsa badezakete ere, 6 urte besterik ez daramatza Jabierrek argazkigintzaren munduan.

— **Nola sartu zinen argazkigintzan?**

— Zuri beltzeko karrete bat errebelatu beharra nuen eta Aramaixoko argazki laborategira joan nintzen. Une hartan konturatu nintzen argazki bat errebelatzea argazki bat ateratzea bezain zirrargarria zela.

— **Orduan hasi zinen ikasten?**

— Bai, lehen pausuak Aramaixoar batek lagunduta eman nituen. Gero argazkigintzan autodidakta izan beharra dago, liburuetan gauzak irakurri eta laborategian esperimenduak egin.

— **Argazki on bat, zer da?**

— Nire ustez, argazki on batean gutxienez oinarrizko hiru gauza zaindu behar dira: behar bezala enfokatu-ta egotea, argia neurritz orekatuta izatea eta enkua-dre on bat izatea. Hiru gauza horiek teknikoki menperatuz gero, nahi



dituen argazkiak atera ahal izango ditu bakoitzak. Argazkiaren edukiak badu garrantzia, baina hori beste roilo bat da.

— **Ateratzekotan, zer nahiago?**

— Gehienbat pertsonen erretratoak ateratzea gustatzen zait, lehen planoak. Izan ere, horrelako argazkietan espero ez diren emaitzak lortzen dira.

— **Txuri-beltza ala kolorea?**

— Motiboaren arabera,

▼
"Errebelatzea argazki bat ateratzea bezain zirrargarria da"

baina orokorrean esango nuke paisaietarako ezik beste guztirako txuri-beltza nahiago dudala.

— **Eta makina?**

— Gaur egun

autofocus-ak erabiltzen dira gehienbat, baina nik nahiago ditut manualak, argi baldintzetarako besteak ez dituzten aukerak eskaintzen dituzte eta; beno, eskaini eskaintzen dituzte baina automatikoa edukita modu manuala ia ez da erabiltzen.

— **Lehiaketak?**

— Uste dut onak direla, batez ere asko ikasteko aukera dagoelako. Lehiaketa bukatu eta erakusketa egiterakoan besteak egingakoa ikusi ahal izaten da eta hor norberak egingakoaekin konpara daiteke. Horretaz gain, lehiaketan argazki-produkzio handia izaten da eta gainera diru apur bat irabaziz gero, gehiago saiatzeko motibatzen du.

— **Arrasaten zelako maila?**

— Ez dakit, inguruko herriekin konparatuz gero, txarra, baina ez arlosteak garelako; azpiegitura ezari leporatuko nioke errua, laborategi publiko bat ez izatea ere....

Onduline TXOMIN HERIZ



eraikuntzarako materialak

Biltegia: Bidekruzeta, 1 Tfnoa: 79 23 18

ARRASATE PRESS



77 05 65


Aste gazte

"Duela gutxi arte, gaztaroa kontzeptua maila ekonomiko altuko familietako pribilegioa zen; gainontzeko neska-mutilak, besterik gabe, heltzarora pasatzen ziren".

"Las mujeres de los 90"

Lanbide-Hezkuntza

• Teknikari Laguntzaile titulua librez lortzeko azterketa deialdia. Euskal Autonomi Elkartearen irakasten diren lehen mailako LH lanalorretan (klinika-laguntzailea, haurtzaindegi-laguntzailea...) Baldintzak: 18 urtetik gora eta lanbide-alorren bateko irakaskuntzako agiria, edo eskola-agiridun izatea eta urtebeteko lan-esperientzia edozein arlotan. Azterketarako matrikulaldia: martxoak 30 - apirilak 10.



AEK bidaiak

• a) Sahara, Oasietan zehar harko bidea: apirilak 16-26, hegazkina Bartzelonatik, (95.900 PTA) b) Marokko, hiriburu inperialak: apirilak 16-26, autobusez, (35.900 PTA) c) Gabarnie: ap. 15-20, mendi-eskia, eskalada-ikastaroa, maldetan zaldiz. e. a. 24.000 PTA.

Expo'92 bidaiak

• Arrasateko HHI-EPAK antolatutakoa: maiatzaren 1eko zubian, bus-literan, 20.000 PTA, 2 egunetako sarrera barne.

• Diputazioak antolatutakoak: maiatzak 7-10, 11-14 eta 15-18, 14-25 urte bitartekoentzat, tren-literan, 20.000 PTA, egun bateko sarrera barne.

• Beste batzuk (bus-literan): apirilak 21-26 (14.900), apirilak 24-28 (12.500).

Aterpetxeak

• Alojamentu mota merke honetaz baliatu ahal izateko, derrigorrezkoa duzu urteko aterpetxe-txartela eskuratzeko. Estatu espainolean 144 aterpetxe daude eta 5.000 baino gehiago mundu osoan zehar. Orientatiboki, pentsio osoa 1700 PTA kostako zaitzu 26 urtetik beherakoa bazara.

Ikastaroak

• "Acción 21" Gasteizko aisialdi-eskolak antolatutako asteburuko ikastaro monografikoak: a) Kale-heziketa (apirilak 4-5) b) 3. adina eta aisialdia (apirilak 11-12). Matrikula: 3.500 PTA.

Bekak

• "Censolar" bekak, eguzki-indarraren proiektatzaile eta instalatzaile diploma lortzeko. Eskatzaileak:

BBB edo LH ikasketak dituzten 18 urtetik gorakoak. Laguntza: matrikula doan (Sevillan). Epea: apirilak 30.

Lehiaketak

• "Aller" XIV. Ipuin-lehiaketa. Gaztelaraz, gai libre. 3 eta 5 orrialde bitarteko lanak. Sari bakarra: 100.000 PTA. Lanak aurkezteko epea: martxoak 31.

• VII. Euskara eta Erdarazko Zumarragako Narratiba-Lehiaketa. 3. maila: a) 14tik behera, b) 15-18, c) 19tik gora, gai libre. Lanen gutxienezko hedadura (mailaren arabera): 2, 5, 7 orrialde. Sariak: 5.000 - 50.000 PTA bitartekoak eta Madrilera bidaiak. Lanak aurkezteko epea: apirilak 25.

Informazio gehiago:

Gazte Zerbitzua,
77 00 65



ARRASATEKO UDALA



EUSKARA SAILEAN ALDI BATEZ LAN EGITEKO TEKNIKARI BAT KONTRATATU NAHI DA

Eginkizuna: Arrasateko entitateak sinatutako "Euskararen erabilpena areagotzeko Hitzarmena"ren jarraipenaz eta garapenaz arduratzea.

Iraupena: 1993ko maiatzaren 31 arte.

Soldata maila: Udal Administrazioako 14 maila.

Baldintzak: Erdi mailako titulu akademikoa gutxienez eta euskara ondo menderatzea.

Izen emateak: Martxoaren 27a baino lehen Udaletxean, "Curriculum vitae" delakoa aurkeztuz.

ETXEBIZITZAK

- Eskoriatzan pisua osatzeko neska baten bila gabiltza. Logela bat libre dago. Dei egin 81 66 24 tfnora.
- Hiru pertsonentzako etxebizitza behar dugu Arrasaten. Tfnoa: 79 48 11. Oskar eta Blanka.
- Etxebizitza salgai. Sukalde-jangela jantzia, 3 logela bere armairuekin, egongela, komuna eta 2 terraza. Argitsua, eta bista ederrekoa. Prezio onean. Tfnoa: 79 93 42.
- Lau gelako etxebizitza behar da alokairuan. Tfnoa: 79 33 59.
- Pertsona bat behar da hiru irakasleekin pisua konpartitzeko. Dei egin ordubateetik 2etara. Tfnoa: 79 71 16.
- Bi oheko logela alokatzen da. Tfnoa: 79 07 73.
- Langile batzuk etxebizitza bila gabiltza Arrasate edo inguruetan. Tfnoa: 77 04 58.
- Etxebizitza salgai Grupo San Juanen. 3 logela egongela-jangela, sukaldea, ganbara. Altzariak ipinita. Dei egin 79 10 47 tfnora.
- Etxebizitza behar dut alokairuan. Tfnoa: 79 51 21.

LANA

- Idazmakinez eta ordenadorez pasatzen dira lanak. (Bai erdaraz eta baita euskaraz edo ingelesez ere). Tfnoa: 79 62 89.
- Aretxabaletako Dis-Tel oihaldendak esperientziadun jostuna behar du. Dei egin 79 48 49 tfnora.
- Neska bat behar da ingeleza erakusteko. Tfnoa: 77 10 59.
- Esperientziadun pertsona, nagusiak zaintzeko gertu. Tfnoa: 77 10 59.

- Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko gertu neska gaztea. Tfnoa: 79 99 17. M^a Jesus.
- Andre euskalduna gertu umeak zaindu, etxeko lanak egin eta pertsona nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 07 73.
- Neska nahiz emakume euskalduna behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko Aretxabaletan. Tfnoa: 79 49 44.
- Ostiral edo larunbatetan ingeleza erakusteko norbait behar dut. Tfnoa: 79 38 01.
- 23 urteko neska gertu etxeko lanak egin edo umeak eta nagusiak zaintzeko. Tfnoa: 79 97 30.
- Fisikako klase partikularrik emateko fisikaria behar da (Euskaraz edo erdaraz). Tfnoa: 79 48 09. Itziar.
- Esperientziadun emakume euskalduna ospitalean gaisoak zaintzeko gertu. Gaeuz nahiz egunez. Tfnoa: 79 34 51.
- Emakume euskalduna behar da bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko. Dei egin 8etatik aurrera 77 00 50 tfnora.
- Sukaldeko laguntzaile moduan lan egiteko gertu nago asteburuetan. Tfnoa: 79 24 58.

SALEROSKETAK

- Alpen Kreuzer Super GT kanping erremolke-denda salgai, oso egoera onean dago. Dei egin 945 - 44 50 43 tfnora.
- Zibro-Kamin RCA-86 berogailua salgai. Dei egin 79 57 93 tfnora egunez edo 79 82 28 gaeuz.
- Monty markako trial-sin bizikleta salgai. Hiru urte 1' erdi ditu eta oso egoera onean dago. 35.000 PTA. Tfnoa: 79 01 94.
- Iaberria dagoen arko-izozkailua eta urte 1' erdiko pixu bat eta kutxa erregistradora bat (3 urtekoa) saltzen dira prezio negoziagarrian. Neurriak 1,30 zm. luzeeran, 0,90 zm. altueran eta 0,65 zm. zabaleran. Dei egin asteartetik larunbatera bitartean 94 - 658 34 94 tfnora.

- Eski alpino egiteko bota pare bat salgai. 43a berri-berriak, bi hilabete besterik ez dituzte. Tfnoa: 76 38 72.
- Mendiko Camet bota pare bat (44 zenbakikoak) salgai. Erabili barik eta oso merke. Tfnoa: 76 24 64. Joxemiel.
- Amstrad CPC 464entzako jokuak eta programak aldatuko nituzke. Interesatuek dei egin 79 42 95 tfnora. Sergio.
- Iaberria dagoen akordeoia salgai. 120 baxu. Beltza. Dei egin gaeuz 79 80 91 tfnora.
- Txakurkume politik salgai 5.000 PTAtan. Oso politik dira. Tfnoa: 79 90 87.
- Kotzeko gurrupilen kubiarta bi salgai. Oso egoera onean. Michelin MXV2, 185-60-13 neurrikoak Tfnoa: 79 03 88.
- CDU ur-berogailua salgai (Duplex) Fagor, oso egoera onean. Tfnoa: 79 09 52.

DENETARIK

- Lanak ordenadorez inprimatuko nituzke. Dei egin 7etatik 9etara 79 58 72 tfnoa.
- Buzoneoa egiteko prest. Enpresa eta erakundeen iragarkien banaketa egiten dugu. Dei egin goicz 79 35 02 tfnora.
- Ehiza-txakur bat erregalatuko nuke, txertatuta dago, eta urtebete du. Dei egin 76 64 47 tfnora.
- Otsailaren 4ean Urkulun eguzkitako betaurrekoak galdu nituen bostak aldera. Inork aurkituz gero, dei dezala 79 21 50 tfnora.
- Urrezko kate bat topatu dugu kalean, zurea bada dei egin 7etatik aurrera 79 33 35 tfnora.
- Egunero Bilbora joateko kotxe baten tokia behar dut. Tfnoa: 79 31 47.
- Musika talde afizionatu batek teklista behar du. Tfnoa: 73 01 17,
- Urrezko belarritako galdu da. Inork aurkituz gero dei dezala 79 53 21. Saritua izango da.

ARRASATEN HILDAKOAK

Eduardo Gascue Serrano,
martxoaren 10ean. 30 urte.

Regina Consuelo Ors Altube,
martxoaren 12an. 88 urte.

Antonia Zarandona Zarragoikoetxea,
martxoaren 12an. 86 urte.

Juan Uribarri Izaeta,
martxoaren 13an. 81 urte.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDE DIRA. TESTUA IDATZI ETA BIDALI GURE BULEGOETARA

TESTUA:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....

.....


Azoka kalea, 1 20.500 ARRASATE

Tfnoa: 77 08 15

Zer nahiago?

Raul Ortuzar

Txitxinpe tabernakoa



- **Zinema ala telebista?** Zinea gehiago gustatzen zait.
- **Benito Lertxundi ala UB40?** UB40, martxa gehiago dauka eta.
- **Emaztegia ala txakurra?** Erdibana.
- **Tabernaria ala aktorea?** Tabernaria.
- **Ile luzea ala moza?** Luzea gehiago gustatzen zait.
- **Oporretan Arrasaten ala kanpoan?** Oporretan kanpoan hobeto.
- **Egin ala Diario Vasco?** Nik Egin irakurtzen dut.
- **Uda ala negua?** Negua.
- **Ardoa ala mostoa?** Ardoa beste gauza bat da.
- **Futbola ala saskibaloia?** Biak antzera.
- **Errealala ala Athletic?** Errealala da gipuzkoarrona.
- **ETB1 ala ETB2?** ETB1, euskaraz da eta.
- **Elkartu ala ezkondu?** Momentuz behintzat elkartu.
- **Emaztegiarekin mendira ala zinera?** Zinera, emaztegiari ez bait zaio mendia gustatzen.
- **Emakume beltzarana ala hileoria?** Berdin zait. Beno, beltzarana.
- **"La dama de Rosa" ala "Falcon Crest"?** Ez bata eta ez bestea, biak ere antzekoak.
- **Kotxea ala motorra?** Kotxea erosoagoa da.
- **Bokadiloa ala pastela?** Pastela, nahiko gozozalea naiz eta.
- **Festetan kuadrilarekin ala emaztegiarekin?** Segun eta zer festa den.
- **Amuarraina ala luzioa?** Amuarraina.
- **Gorria ala berdea?** Gorria.


Bertsotan

Udaberria

1
 Negu iluna igaro zaigu
 badator udaberria
 jadanik guztiz loratu zaigu
 Arrasateko herria
 Seberon dauden zuhaixkek ere
 badute traje berria
 txori kantuak, lore usaia
 zein urtaro pozgarria
 guzti hau bertsoz ezin esana
 ez al da penagarria?

2
 Udaberria iristeaz bat
 poz bat dut nere barnean
 baina poz hori tristezi batek
 zapaltzen du bitartean
 nola loreak falta zaizkigun
 Euskadiko jardinean
 baina jardin hau loratuko da
 gauza batzuk aldatzean
 Euskal Herrian loratu gabe
 dauden lorak loratzean.

MAIDER OSA



ETXEPARE - BILINTX LIBUBUDENDA

Liburuak eta diskoak

Ibargarai, 12 BERGARA Tfnoa: 76 40 50



Zuhaitz Eguna, 1954ko martxoaren 25ean

Z

uhaitzaren eguna ospatzea ez da atzo goizeko kontua. Argazki zahar honetan, egun hori ospatzen zuten Viteri Ikastetxeko

neska mutikoek ere, 1954ko martxoaren 25ean. Asto, idi eta gurdi,

erregionalismoaren alabantzan traje ezberdinak jantzita, honako hauek dira galdezka ezagutu ahal izan ditugunak: Gurdi gainean ezkerretik hasita Edurne Garai, X, Mari Karmen Markiegi, Begoña Aranburuzabala, Tere izeneko bat, X, Begoña Balerdi, Mariangeles Ugartetxea, X, X, Jose Antonio Bedia, Koro Atxa, Gurutze Uribarren eta Arrate Markiegi.

Behean ezkerretik, Maribel

Etxebarria, X, Karmelo Errarte, Jose Ramon Gorosabel, Jesus Garai, X, Jose A. Balerdi, X, Larrañaga "Pitxitxi", X, Jesus Mari Gonzalez "Txoko", X, Maria Luisa Errarte, Kontxita Garro, X, Patxi Axerikoa, Enrike Stegmeier asto gainean eta Felipe Balanzategi. Hurrengo ekitaldi baten ume talde horrek berak sartutakoak ei dira San Prudentzioko makalak.



Zurgin Kantoi, 2

Tfnoa: 79 20 04

ARRASATE

URRATS


AHOLKULARITZA

GARIBAI, 3

Tfnoa: 79 87 74

ARRASATE

Gurutzegrama




Horizontalak

1. Doinuak
9. Arrasateko Etorbidea
10. Askotan
11. (Ald.) Enara
12. Abestixe
14. Egunak 24 ditu
15. Musika nota
17. Akorduko bokalak
18. Jantzi mota

Bertikalak

1. Mozala
2. Modu
3. Heldu
4. Burutu
5. Sega
6. Aterabide
7. Sexuen elkarrenganako joera
8. Estualdi
13. Garai
15. Europako Komunitatea



JUAN BAUTISTA AGORRIA

Elkarlanari ekinez...

BI AUKERA BERRI HAUR HEZKUNTZAN



- **4 hilebetetatik aurrera**
- **San Josepen**
- **Ordutegi eta egutegi zabala**
San Josepe z/g eta J. L. Iñarra, 30-32
Tfnoak: 79 0102 / 79 71 22

- **2 urtetik aurrera**
- **Auzoetan (Musakola, Olarte, Uribarri)**
Gazteluondo, 4
Tfnoak: 79 26 40 / 79 41 22

MATRIKULA EPEA ZABALIK!



ATB

Telebegi

Erreportaiak

Astearte, 9.20

Gutxika-gutxika ATBren programazioaren barruan kontsolidatu den saioa dugu asteartero Koldo Rodriguezek maixutasunez aurkezten duen *Erreportaiak* saioan.

Datorren martitsenean ere hortxe izango duzue aukeran, alde batetik Udaberriari buruzko lan bat, eta bestetik ahizpa Mertzadariak laister Arrasaten beteko duten 100. urteurrenaren inguruan borobildutako erreportaia. Ez hutsik egin. Koldo Rodriguezek 9.20 inguruan emango dio hasiera bere saioari!

ATBketan

Arrasateko konkurtsorik onena. Duda barik!!

**Ostegunetan
9.15**

AITA JAUNA

Marlon Brando, Al Pacino eta Diane Keaton, Coppolaren zuzendaritzapean. Hiru Oskar zure etxean

**Egunero
9.50etan**

Txatxaran

Jabi Tramon nekazari eta filosofoa

**Asteazkenean
9.15etan**

ATB, mota guztietako erizietara zabalik dago. Ezinbestekoa da, herritar guztien telebista izango bada. Ezinbestekoa, era berean, luzaro iraun nahi badu.

Zabaltasunak eritzien arteko oreka eskatzen du, bai presentzian, bai bakoitzari ematen zaion denboran. Oreka hori mantentzen saiatu gara ATBn eta ez dut uste huts handirik egin dugunik, batz bestea.

Baina oreka mantentzeak, geure ahaleginaz aparte, eritzi-emailen zintzotasuna ere eskatzen du, emandako arauak errespetatzea, alegia. Eta hori ez da beti horrela gertatzen. Joan den osteguneko informazioan Luis Pagoagak egin zuena lekuko: bi pertsona elkarrizketatzeko 5 minutuko denbora zegoenean, berak lehen erantzunarekin bakarrik ia 6 minutu bete zituen, aurrikusitako eskema hankaz gora jarri.

Horrelako portaerek ez diote ATBri inongo mesederik egiten. Ez genuke, haatik, kronometroaren diktadurapean erori nahi, arauen errespetoz joka daitekeela uste dugu oraindik.

Saia gaitezen denok horretan!

MIKEL IRIZAR

Programazioa

22

IGANDEA

9.15. *Mondragol*. Lagun Onak-Mondra partiduaren ordu erdiko laburpena, Jose Luis Ezkurraren ardurapean.

23

ASTELEHENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBko albiste-emanaldia.
9.15etan, *Mondra Sport*. Arrasateko kirol-mundua-
ren errepassoa, Gerardo Mendizabal eta Mikel Uri-
besalgorekin.
9.50. *Asteko zinea*: Aita jauna.

24

ASTEARTEA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. Egunean zehar jasotako notiziak.
9.15. *Erreportaiak*. Aste honetako gaiak: La Merced ikastetxearen 100. urteurrena eta Danok Bat soziedadearen arazoak.
9.50. *Asteko zinea*: Aita jauna.

25

ASTEAZKENA

8, 8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBko albistegia.
9.15. *Txatxaran*. Maider Egués-
ek zuzendutako elkarrizketa saioa. Gonbidatua: Jabi Tramon Gesalibarko nekazari biologikoa eta filosofoa.
9.50. *Asteko zinea*: Aita jauna.

26

OSTEGUNA

8,8.30 eta 9etan, *Berriak*. ATBren albistegia.
9.15. *ATBketan*. Arrasatear-
ron konkurtsoa, Anne Igartibururen enkantuz.
9,50. *Asteko zinea*: Aita jauna.


27

OSTIRALA

8,8.30 eta 9etan, *Berriak*. Arrasateko albistegia.
9,15. *Ostiral Musikala*. Marta Izagirre eta gonbidatuek armoniaren gainean jardungo dute.
9.50. *Asteko zinea*: Aita jauna.



OPEL ASTRA BERRIA



Puntuantitzeko Injekziodun Astra motore-serie berria, potentzia handiagoa cm³-ko.

POTENTZIA ADIMENTSUA

*Imajinatu! Opel Kontzesionariak
Opel Astra berriaren potentzia
egiaztatzena gonbidatzen zaitu.*

*Beti zurea,
Opel Astra.*



Imajinatu Astra motore berrien posibilitateak. Imajinatu 82tik 150 CV-erainoko potentzia adimentsua. Imajinatu, zeure ekonomian pentsatzen duen potentzia, eta eraginkorra, azken-azkeneko. Puntuantitzeko Injekzio Sekuentziala duena. Ekologiaren adiskide, 3 bideko Katalisatzailea integratuta. Imajinatu, potentzia adimenarekin bat eginda. Opel potentzia duzu.

Gidatzeko atsegina dagoeneko ez da zilindrada-kontua, adimen-kontua baizik. Egiaztatu zeure Opel Kontzesionari Ofizialean. Gonbidatua zaude.

OPEL

BADAZU OPEL ASTRA-RIK 1.547.000 PZTA.*

OPEL ASTRA, ALEMANIako INJINERUTZA ETORKIZUNERAKO

* Fabrikatzeileak gomendaturiko prezioak (Penintsula eta Balearetarako), garraioa, BEZ eta emate-aurreko gastuak barne. Kopuru handiko salmentak ere bai. Eska informazioa zeure Opel Kontzesionari Ofizialari eta finantziario eta leasing-erako, ez ahaztu Opel Credit, Opel Leasing eta Opel Renting-en baldintza paregabeak.

TALLERES OLA, S. L.

Olabarrena Auzoa, z/g. Tfnoak: 76 33 44 / 45 / 46. BERGARA (Guipuzkoa)

Erakusketa ARRASATEn: Loramendi, 2. Tfnoa: 79 05 86

DEBA ARRO. LEINTZ BAILARA ETA GOIERRI GARAIrako

kontzesionaria

Zerbitzu Ofiziala ARETXABALETAN

TALLERES NORTE

Pol. Ind. BASABE. Pabellón A-13. Tel. 79 62 65



OPEL KONTZESIONARI OFIZIALAK, HOBEAK ESPERIENTZIAZ.